

tti pi-ttapa

295. zenbakia • 2001ko otsailak 8 • XXI. urtea



IKASBIDAIK

Ikasketen osagarri edo lagunarteko oporrak?


Ikasketa ziklo bati eta, auztan, urtetan ikaskide izan direnei agur errateko modua izaten dira ikasbidaia. Gehienetan, gurasoetatik aparte eta lagunartean egiten duten lehen bidaia izaten da hamalau hamasei urteko neska-mutikoentzat. Hori lortzeko, aitazetik lana egin behar izaten dute eta kamisetak salduz edo errifak eginez lortzen dute bidairako dirua. Aurten, inguru honetako ikasle-txetan ikasbi-

dairako dituzten planak jakin nahi izan ditugu eta bi *filosofia* ezberdin harpatu dugu. Ikasle gehienek eta irakasle batzuk, la-

guntzarako baliagarriak izanen diren ekitaldiak eginez. Bertze urte batez, bien arteko oreka bilatzen saiatuko dira.



3-5



6 Gaurkotasuneko Gaia: Behien txuleta hezurrik gabe

Europako Nekazaritza eta Abeltaintza ministroek hartutako erabakiaren arabera, hemendik aitzin behi-txuleta hezurrik gabe saldu beharko da. *Txuleta-ren Kulturaren* ohitutako inguru honetan izanen duen eragina jakiteko harakin bati, sagardotegi bateko nagusiari eta sukaldari bati galde egin diegu.

24 Kirola: Nafarroako Kros txapelketa

Ez zuten nolana hiko uzta ekarri inguruko korrikalariak urtarillaren 28an Altsasun burututako Nafarroako kros txapelketatik. Senior mailan, Rafa Maritxalar le sakarra eta Maika Ariztegi iturendarra txapelduen suertatu ziren. Juniorretan, mutilen artean, Iñaki Mihura arraoztarrantzat izan zen txapela.

25 Kirola: Paxaka txapelketa azken txanpan

Final laurdenak jokatu dira larunbat honetan Irurritako Arania pilotalekuan. Finala, berriaz, martxoaren 3an izanen da.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



MUEBLES METS

Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

4.000 m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko
Larunbat arratsaldetan irekia



ESKAINITZA BEREZIA

**Bainuko moleak
intxaur egurrez eginak**

120 cm.155.720 pta

90 cm.107.815 pta

80 cm.98.835 pta

Lababoa opari

- **Sukaldeak, bainugelak, logelak, egongelak, etxeko osagarriak**
- **Materiale desberdinetan eginak**
- **Zure sakelera egokituko gara. Eskatu aurrekontua**



Ikasketei akabaila emateko modu arruntena ikasbidaia izaten da. Ikasleek beraiek antolatzen dute normalean eta errifak edo kamisetak salduz bidairako dirua ateratzen dute. Gehienetan, Katalunia edo Mallorca aldera jotzen dute, baina Andaluziara ere. Ikasle gehienek, lagunartean oporraldia ederki pasatzeko eta ikastetxeko teilatupetik alde egiteko egunak direla uste dute: Ingurua ezagutu, eguzkia hartu eta gabez, diskoteketara bisita egin. Beraien laguntzaile joaten diren irakasle batzuk, ordea, ikasbidaiek funtzio pedagogikoa ere bete behar dutela uste dute: joaten diren herrietako kultura, arkitektura, ohiturak... ezagutu. Ongi pasatu, bai, baina aldi berean hezkuntzarako ballagarriak izan diren ekitaldiak eginez. Eskualdeko ikasleek aurtengo ikasbidairako dituzten planak ezagutu nahi izan ditugu.

TESTUA: AITOR AROTZENA



IKASBIDAIK

Ikasketen osagarri edo lagunarteko oporrak?

Ikasketa ziklo bati akabaila emateko modua izan ohi da ikasbidaia. Garai batean, OHoko zortzigarren maila, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa akautzerakouan, hainbat urtez elkarrekin aritutako neska-mutilek ikasketak eta, batzuetan, ikaskideak beraiek agurtzeko modua izaten zen. Gaur egun, DBHko laugarren maila edo Batxilerra ikautzen duten ikasleak dira ikasbidaia

egin ohi dutenak. Laguntzaile gisara irakasleak eramatea izaten da normalena. Batzuen ustez, ongi pasatzeko egunak dira, bertez batzuentzat, ikasketen osagarri izan behar dute. Nora joanen dira aurtengo eskualdeko ikasleak?

Berako Toki-Ona Institutukoak Ebroko Deltara

Marisol Taberna, Berako Toki-Ona Institutuko irakaslea, Ebroko deltara joanen da aurtengo, DBHko laugarren mai-

lako 32 ikaslerekin batera, bortz egun pasatzera. Bere ustez, ikasbidaiek funtzio pedagogikoa bete behar dute beraz. «Nire ustez, bidalek kulturarekin eta hezkuntzarekin lotutako ekitaldiak izan behar dituzte nahitaez. Iaz Bartzelonara joan ginen eta arkitektura aldetik Gaudiren eraikuntzak, Güell Parkea eta bertzelakoak ikusi genituen. Azkenean, egun batez Port Aventura ere joan ginen, aisialdia ere behar delakoz». Joan den urtera arte, beti ha-

malau urtekoekin joana zen Marisol. «Iaz izan zen hamasei urtekoekin egiten nuen lehena eta banuen beldurra, baina orain arteko onena izan dela erraten ahal dut. Aitzinetik argi eta garbi jarri nituen joateko baldintzak eta ikasleek onartu eta bete zituzten. Marmaririk ez zen izan. Ikasleen artean bada denetik, kultur bidaia gustoko dutenak, arratsetan diskotekara joan nahi dutenak edo eguzkia hartu nahi dutenak... Baina bakarrik oporraldi gi-

Eskualdeko bidai agentziek ez dute ikasbidaietaz deus ere jakin nahi

Ikasbidaietan dituzten eskaintzak jakinasmoz inguru honetan ditugun bidai agentziatarajo dugunean, kasik ahobatez erantzun digute Elizondoko Zunzarren eta Lesakako Maldaerrek: «Ikasbidaietaz ez dugu deus ere jakin nahi».

Maldaerrekako Josetxo Susperregik eman digunez, «ahalik eta

preziorik merkeenak lortzen saiatzen dira eta normala da, gazteak direlako eta dirurik ez dutelako. Baina prezio horietan guk ezin diegu kalitatezko eskaintzarik egin. Kanpoko agentzietan egiten dute eta uste dute kristoren txolloak harriatu dituztela, baina txollorik ez da izaten. Gero, bidaietan, etortzen dira ustegabeak. Guk ez dugu horrela funtzionatzen».

Iritzi beretsukoa da

Zunzarreneko M^o Eugenia Sobrino: «Eskaintzen dituzten prezioetan batere gomendagarriak ez diren hoteletan eta lekuetan sartu behar dituzu eta horretarako hobe da eskaintzarik ez egitea, ez digu konpentsatzen».

Zunzarreneko arduradunak gogoratzen duenez, duela bortz-sei urte arte eskaintzen zituzten ikasbidaiak, «Berako Toki-Onakoak ere etorrikatu dira, baina orai ez dugu nahi».

Josetxo Susperregiren erranetan, adinaren arabera aldatzen da ikasbidaiaren nahi dutenen jomuga: «Hemezortzi urtetan Europa aldera jotzen dute, Amsterdam aldera eta. Baina hor gehienetan zera gertatzen da: ikasleak joan nahi duten lekura gurasoek ez dute uzten eta gurasoek uzten duten lekura ikasleek ez dute joan nahi».

Normulean ikasleak bortz edo sei aurrekontu biltzen omen dituzte.

«Guk gauzak diren bezala ematen dizkiegu -dio Susperregik- eta bertze batek prezio merkeagoan eman eta harat joaten dira, baina azkeneko momentuan etortzen dira prezio igoerak. Hoteletan logelak izaten dira eta merkeago ateratzeko hamar bat lagunendako lekua eskaintzen duten lekuetara jotzen dute, baina aldi berean intimitatea ere nahi dute. Merkea eta ona ez da errexa izaten».

sara ez ditut ongi ikusten ikasbidaiak. Bidaia Mallorcara balitz ez nintzateke joanen, inondik inora. Aurtengoan, berriz, Ebroren delta inguruan kirol aktibitateak ere egiten ditugu, rafting... eta egun bat osorik Bartzelonan ematen dugu».

Doneztebeko Mendaurren Institutukoak Mallorcara

Bidaia hauen inguruko bertzelako ikuspeirik ere bada. Doneztebeko Mendaurren institutuko DBHko laugarren mailako ikasleak Mallorcara joanen dira. 32 ikasle eta 3 irakasle joanen dira, astebetez. Antolaketan burubelarri ari den ikasleetako bat da Maria Larretxea. Bere erranetan, ikasbidaiaren helburua oporaldi bat gustora pasatzea bertzerik ez da. «Urte osoa hor dugu ikasteko. Astebetez pixko bat deskonektatzea ere ez dago hain gaizki eta ongi pasatzea bertze helbururik ez dugu. Halere, museo bat edo bertze bisitatu dugu, bertzenaz... Hasieran arazo batzuk izan genituen, batzuk Bartzelonara joan nahi zuten, baina azkenean Mallorcara joateko gelditu ginen».

Dirua ateratzeko ohiko sistemak erabiltzen dituzte Mendaurren Institutuan ere. «Ferieta postua paratu ginuen eta errifak ere egin ditugu, boletoak salduz. Hortik ateratzen da dirua, baina az-



Doneztebeko ikastetxeko neska-mutikoek duela urte batzuk Eurodisneyera egin zuten ikasbidaiak.

kenean beti eskatzen zaio gurasoel ere» dio Mariak. Lagunartean egiten den lehenaldiko ateraldietako bat izan arren, gurasoek ongi hartzen dutela iruditzen zaio Mariari: «Lehenbizikoa aldia izanik, ongi hartzen dute. Ez dute pegasarik jartzen».

Doneztebeko ikasle hauen laguntzaile joanen da Mirari Telletxea irakaslea, bere lehen ikasbidaietan. Bere ustez ere, ikasbidaiak opor egunak dira. «DBH bukatzen dute eta ziklo bat borobiltzea da. Elkarrekin ikasten aritu dira

eta hori agurtzeko modua da, urte batzuk elkarrekin egin dituzte eta bakoitzak bere bidea hartu aurretik egiten den bidaia. Ez diot beste helbururik ikusten. Pedagogiarekin edo kulturarekin lotuako eskurtzioa egitekotan urtean zehar egiten genuke. Kasu honetan irakasleok antolatuko genuke, baina ikasbidaiak ikasleek beraiek egiten duten gauza da». Edozein gauza pusatuz gero, arduradun bat izatea da, Miraren ustez, bere funtzioa ikasbidaietan. «Ikasleek ere lasaitasun hori dute, zerbait pa-

satzen bada, hor badute erreferentzia bat. 15-16 urterekin ez balta errexa ardura hartzea».

Berako Labiaga ikastolakoak Bartzelonara joateko asmotan

Berako Labiaga ikastolako DBHko laugarren mailako hogeit hamar ikasleek ekainean bortz egunerako Bartzelonara joateko asmoa dute. Irakasleek Euskal Herri barrinean edo inguruan gelditu nahi zuten bidaia egitekotan, baina ikasleek kanpora atera

nahi izan dute. Lehenengo aldia da Labiagako DBHko ikasleek ikasbidaira joatea lortuko dutena. Irati Mitxelena ikasleak aipatu digunez. «Gurasoek bidai ludiko eta kulturala izatea proposatu digute. Ea denon artean, denoi gustatzen zaigun zerbait prestatzen dugun. Bartzelonara prestatzen diren bidai gehienetan bezala egun bat Port Aventura pasatzeko eta museo batzuk ere ikusteko intentzioa dugu, baina ez dugu egun osoan museotan sartuak egon nahi». Berako Lurraren Egunean eta Lesakako ferietan paratutako postuak eta ohiko kamiseta eta saskiekin batera, azkeneko bi ikasturtetan, ortziraleko, berrehuna pezeta paratzen dituzte, bidaiari egin ahal izateko.

Leitzako Amazabalen, batzuk Mallorcara besteak European barna

Leitzako Amazabal Institutuan ere kurtsoa bukatzerakoan egiten dute ikasbidaiari, ekaina aldera. Aurten bi helmuga izanen dituzte, Maddi Oiano ikasleak aipatu digunez. «Hamaika lagun Mallorcara joanen dira eta beste 26 edo European zehar ibiliko gara, Praga, Frantzia, Belgika... ikusiz. Azken honetarako Tolosako instituturen batekin bat egin nahi dugu». Helburuari dagokionez, «gehien bat ongi pasatzea eta leku ezberdinak lagunartean ezagutzea, elkarrekin egin ditugun urte-erdi despedida ematea da, nolabait» Maddiren ustez. «Izanen da diskotekatik lotara eta ohetik diskotekara ibiltzen denik ere, baina Europako lekuak ikusi nahi ditugu». Eguberrietan bonboiak eta polboroiak saldu dituzte eta hilabeteko kuota bat ordaintzen ari dira. Gurasoek ez diete trabarik jartzen eta orokorrean bidaiatzearekin ados daude, hori bai aholkuak maiz aditzen dituzte: «Erresponsableak izateko esaten digute».

Amazabalen irakasle den Kristina Ezenarro ez da aurten ikasbidaira joanen. Duela hiru



Goitian, Elizondoko ikasleak duela urte batzuk egindako ikasbidaiari. Beheltian, Toki-Onako ikasleak joan den urtean Bartzelonak Akuarioan.

urte, ordea, Mallorcara joan zen ikasleekin. «Ikasleen asmoa ez zen hura ezagutzea eta horregatik behartu genituen portua eta katedrala bisitatzera, museo batzuk ikustera... Oporraldi gisara hartzen dute. Normalean, etxetik kanpo gurasoekin ez dauden lehen aldian da. Ikasleen arabera ere asko aldatzen da bidaiaren helburua. Talde bat arduratsua bada, joaten den lekua ezagutzeko

gogo gehiago jartzen du. Europako hiriak ezagutu nahi izaten dituzte». Ikasbidaiek bera ikasle zen garaiko funtzio pedagogikoa poliki-poliki galtzen joan direla uste du Kristinak.

Lekarozko Institutuan ez dute oraindik ikasbidaira joan edo ez joan erabaki.

Arantza, Goizueta eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskola ttikietakoak ere badoaz

Goizuetako Xalto eskolan DBHko Lehen Zikloa bukatzen duten 12 neska-mutikoak, berriaz, Bartzelonara joanen dira astebetez. Ana Urdanagarin

irakaslearen ustez, «uzenean ikasketekin zerikusirik ez bada ere, beti zerbait ikasten da: bakarrik moldatzen, lagunekin egoten... horrek ere pertsona bezala garatzen erakusten die. Edozein moduz, oso zorrotzak izan gabe, joaten diren lekuko gauza batzuk erakusten ere saiatzen gara».

Arantzako eskolan DBHko lehen eta bigarren maila ikasten duten bederatzik ikasleek Bartzelonako aterpe batean sei gau emanen dituzte ekainean. Martxela Martinez irakasleak erran digunez, bi helburu bete nahi dituzte: «Ongi pasatu bai, baina gauzak ere ikusi nahi ditugu, museo batzuk bisitatu... Zientziaren Museora joanen gara, seguru. Ikasleak ongi pasatzera joaten dira, baina gauza berriak ikasiz ere ongi pasatzen ahal da».

Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolan DBH ikasten ari direnak, azkenik, astebetez Urbasako Campus batera joanen dira, martxoaren 12tik 16ra. Ikastetxeak berak antolatzen duen ekitaldia denez, ikasleek ez dute bidairako dirurik lortu beharrik. Lehen Hezkuntzako azken zikloan adi direnekin batera joanen dira Urbasara DBHkoak. ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>
e-mail:
ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apeztebea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Berriemalleak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Pabí Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbifé Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu.
Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Mallerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria 160 Libera
Europa 4.000 Pta.
Amerika 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Txuletaren hezurra debekatu dute

Ez da batere ongi informatu gai honen inguruan



Angel GARCIA
Laraldia sagardotegia

Txuletari hezurra kentzeko erabaki hori ez zait ongi iduritzen, baina kendu behar bazailo kentzen zaio. Ez du zentzu handirik behiak analizatu eta sano daudela erran ondotik hezurra kentzeak, suposatzen baita garrantzia guzietan heldu direla. Orain hiltegitik hezurra kenduta etorriko dira hala ere. Kostako da, baina jendea ohitu eginen da hezurrik gabe jatera. Bertzalde, uste dut ez dela batere ongi informatu gai honen inguruan, eta jendearan artean psikosi pixka bat sortu da horregatik. Titularrak soilik irakurri beharrean testu osoa irakurtzen bada ongi ulertzen da, titularrak txuletoia debekatu dela erraten baitu eta barnean txuletoia hezurraz ari baitira. Dena den, inor ez da solastu hamburgesetat eta salbixetat, edo bertze motatako haragietaz. Bukatzeko argi utzi nahi dut gu sagardogileak garela, eta saltzen duguna sagardoa dela. Txuletoia sagardoa dastatzen laguntzeko modu bat da, zerri txuletak, bildotsa edo gasna diren bezala... eta ez da erretegi batean bezala, hemen garrantzitsuena sagardoa da.

Hemen urtea baino gazteago diren aziendak hiltzen ditugu, eta hoiak lasai jaten ahal dira



Endika MENDEGIA
Harokina, LESAKA

Euskal Herrian ohitura handia dago txuleta jateko, eta alde horretatik alukeria ederra da. Hala ere, hemen urtea baino gazteago diren aziendak hiltzen ditugu beti eta normalki hortan ez da hezurrik kentzen. Beraz, ez dago problemarik, txuletak jaten ahal dira lasai ederrean. Harategian jendeak kezka agertzen du gai honen inguruan, inork ez dakielako ziur zer dagoen eta zer ez dagoen. Telebistan erraten diren gauzein ere auzintzan nahastu egiten da jendea. Guk somatu dugu guzi honen eragina, ez aunitz, baina beti zerbait ere bai. Lagundu behin ez du egiten. Beharbada orain oilaskoa gehixeago saltzen da. Nik ez dut ongi ulertzen zergatik kendu behar zaion hezurra, behin analisiak egin eta ongi baldin badago... hor badago kontrastean bat. Orain dela aste pare bat sanidadeko albaitero bat egondu zen eta aitortzen zuen beraiek ere ez dakitela. Jende guzia galdu xamar dago. Batzutan telebistan jendea lasaitzeko edozein gauza erraten dute eta ez da segurua.

Jendeak txuleta igual jaten du, baina hezuraren izkina utzi egiten dute



Iñaki POKABEA
Zubionda jatetxea

Neri izugarria iduritzen zait txuletari hezurra kentzea, gainera karpaina ikaragarria egin dute eta jendea obsesionatu egin da horrekin. Azkenean galtzaile ateratzen direnak betikoak dira, etxean aziendak dituztenak. Beti bezala administrazioak berari komeni zaizkion neurri batzuk hartzen ditu. Gainerakoan, jende guziak igual-igual jaten du txuleta, baina gauza kurioso bat gertatzen da: hezuraren izkina utzi egiten dute. Sagardotegietan gehien erabiltzen den haragia idi-txuleta eta behi zaharraren txuleta dira, hoiak 36 hilabete baino gehiago dute. Beraz, orain soluzioa aretxearen txuleta ematea da (baino ez du gusto bera inondik inora ere) edo entrekota ateratzea, hezurrik gabe, alegia. Egia erran jateke berriean ez gara oharu haragi guttiago jaten edo ez. Baina Zalain jatetxean, adibidez, konstituzioaren zubian 800 edo 1.000 lagun inguru izan baziren txuleta bat bakarri atera zen. Pentsa ze obsesioa duen jendeak! Izan ere, informazio falta handia dago, jendeak ez daki nondik nora dabilen gaitz hau.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteheneretik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortzaleetan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bitiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Eskermile aunitz Mariano:

Baztan ikastolak, gorreipatu nahi du Mariano izetak bere bizi osoan eskuara eta eskual kulturaren alde egin duen lana eta agertu duen jarrera. Alde batetik utzi dizkigu bere idazlanak: eleberrak, Baztango hiztegiak, hainbat egunkari eta aldizkarietako idazlanak...

Eta bertze aldetik solasean agertzen zuen euskararekiko maitasuna, ilusioa, animoa, gozamina.

Gizon jakintsua izan arren herrikoa, apala eta xumea agertzen zen. Euskarak bizi izan dituen eta jasaten dituen zailtasuna eta oztopoen aintzinean, beti baikor agertu izan da, eta berak erabili zuen indar, gogo eta gar hori, piztua mantentzea izanena da ikastolak bere oroimenez egin dezakeen esker keinu edo omenaldi hobereana. Eskermile aunitz Mariano.

BAZTAN IKASTOLA

**Euskararen eskubideak ukatuak Nafarroan**

Nafarroan bizi gara. Nafarroako herritar izateaz gain, kristauak eta apezak gara. Nafarrak eta kristauak garenez, ezin gara isilik gelditu. Nafarroako Gobernuak euskara gure hizkuntzaren eta gure euskal kulturaren

aurka hartu duen jarreragatik. Euskara erabiltzeko eta euskara ikasteko oztopoak paratzen eta laguntzak murrizten ari baita, eta euskaraz bizitzea oraindik zailago egiten. Hizkuntza eta kultura herri baten arima dela antz idazleek errana da. Xalbador bertsolari nafarrak hizkuntza herriaren bihotza dela dio. Jende bakoitzak eta herri bakoitzak bere izaera propioa du, bere arima berezia, eta bere lehen egitekoa izaera horietaz jabetzea eta izaera hori sendotu eta osotzea da. Horregatik, hizkuntza eta kultura zaintzea eta sendotzea nahitaezko betebeherra du herriak. Fededunonatz, gainera, hizkuntza eta kultura aniztasuna Jainkoaren kreazioaren fruituak dira, arrazoi bat gehiago begirunez eta esker onez balioztatzen. Euskararen eta euskal kulturaren egoera Nafarroan nahiko zaila da, nahiz eta bertako hizkuntza eta kultura propioa izan. Aspalditik jasan badu ere goikoen baztertzea, orain, zer eta gaztelania baino lehenagokoa eta nafar gehienek hizkuntza izan dena, aipetutako baztertearen ondorioz gutitu denean, erdalduen diskriminatzailetzat akusatzen hasi dira. Diskriminatzailetzat akusatu euskara, soilik bizitzeko eskubidea eskatzen duenean, ez bertze hizkuntzen heriotza, ez inoren baztertzea. Eta lotsagarria iduritzen zaigu Nafarroan

arrotz eta urrungoak diren hizkuntzekin parekatu nahi izatea. Hori horrela, Nafarroako gaurko agintariek Nafarroako herritarren izaera ez dute errespetatzen. Herriarren bizi-kalitatea zaindu eta hobetzeak, herritar horien izaera eta arima, herritar horien kultura eta hizkuntza zaintzea eta hobetzea eskatzen du, lehenik. Nafarroako aniztasuna aintzat hartu eta begirune osoz zaindu beharreean, ordea, bereizketa eta euskaldunen bazterketa bultzatzen dute. Eta horrela, kultura ezberdinen arteko urruntzea eta elkarren etsai bihurtzea eraginez, nafarren arteko elkarbizitza zailtzeko bideak zabaltzen ari dira.

JOSE JABIER AZKORRE,
RAMON APEZTEGIA, JOSE MARI
ALEMAN ETA
MENDIALDEKO BESTE 35 APEZA.

**C.D. Baztaneko jarraitzaileei:**

Honako hitz hauek, "C. D. Baztaneko" lehendakaria den Esteban Ustariz zuzendua daude. Nahiz eta bizitzaren hastapenetik talde honetako kide izan garen, bai-baitan era ulergaitz batean kanporatuak izan gara. Beraz, hau guztia oinarri bezala hartuz, Ustariz jaunak "COPE" iratien helerazi zituen berbak ez zalzkigu zi-

legiak iruditu. Besteak beste, bertan, gu gure borondatez taldeak joan girela nabarmendu baitzuen.

Honen aurrean bazkideei eta zaletuei gauzak argitzeko ibaropenarekin honako puntu hauek argi utzi nahi ditugu:

- Baztan Bidasoako areto futboleko bazterketan parte hartzea, Baztango futbol taldean ari ginen bitartean, izan da gu kanporatzearen zioa.

- Komunikabideetan adierazi zenuena ukatuz, gure erabakia ez zen taldea uztea izan. Gu kanporatzearen gertaera, zuk inposaturiko erabaki ulergaitz baten ondorioz gertatu baitzen.

- Baztan Bidasoako lehaketa honetan, talde bakoitzeko futbol mailan federatuak ziren hiru pertsonen parte hartzea onartzen zen. Beraz, gu legitimitate horren barnean aritu ginen.

- Aitzitik, 2000/01 ligaren hastapeneko bilera, entrenatzaileak ez zuten areto futboleko aritzearen debekua ezarri, beti ere lehentasuna Baztan futbol taldeari eskeintzen bagenion.

- Gure aburuz, ekintza fisikoak diren heinean, areto futbola eta futbola baliokideak dira eta areto futbola lesioak ekar ditzakela adieraztea aitzaki antzua iruditzen zaigu. Bizitzaren jardura bakar batek ere ez baitu lesioen ekidilea bermatzen (mendian ibiltzea, pelotan aritzea). Guzti honekin, errango du-

gu gure eguneroko kirol jardueretan lehentasuna futbola zuela (entrenamendu saioek, partiduek e.a.) eta beraz, hastapeneko konpromezuaren bermea segurtatua genuela.

Bukatzeke, gaur egun Baztan futbol taldean segitzen duten jokalariei gure animoa eta zortetik onena opa nahi diegu, dauden egoeratik atra daitezten.

Agur bero bat.

NIGO ARREGI, JOSEMI OSKAR,
AGUSTIN MITXELENA, JABIER
OARREGI, JON FRANZESENA.

**Ex legeko edukitzea Aresoko eskolan**

Lehenengo ostegunean, urtarrilaren 25ean, Aresoko eskolako gurasoak bere ume txikiekin kontuak emateko urteroko batzara egiten ari zirela, alkatesak kanpora ateratzeko atea ibi egin zuen ordu batez, denak barruan edukiz. Bileran eskolako zuzendariak horretarako izendatutako gelan egiten ari ziren, bera bakarra baita legez horretarako dena. Guzti hau Udalak eta eskolako komunitateak gela erabileraz aspaldian duten arazoa dela eta gertatu da.

ARESOKO GURASO ELKARTEA



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Heritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



ZUBIRIA MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias 01eko urtarrilak 28

«Behiekin lan egiteak egunero hamabortz lan ordu eskatzen dizkizu eta hogeita lau orduko dedikazioa. Aretzea goizeko Zetan jaiotzen bada jeiki egin behar dut eta hori ez du inork ordaintzen».

Jose Joaquín AZKARATE
Aizola juregia baserrikoa
Diario de Noticias 01-01-28

«Ezin dugu orain arte bezala segitu: lurra hondatzen, aziendak esplotatzen, bizi baldintza kaxkarretan kontzen dira eta horrek kalitatean du eragina. Azkenean, jaten duguna da bizi kalitatea eta osasuna neurtzeko

erabiltzen dugun neurri garrantzitsuenetako bat eta, gaur egun, ez dago batere segurtasunik».

Gabriel ERRANDONEA
Berako Nabasturen baserrikoa
Diario de Noticias 01-01-28

«Egun hiltegiaren dauden ibereak arrazoi burokratikoengatik dandae bertan gelditu, ez osasun arazoengatik. Orain etozein albatarrak sinu lezake ongi daudela eta haragin desmobilizatuko litzateke berehala».

Mikel PETRIRENA
Nafarroako EHNE lehenetaria
Egunkaria 01-01-30

◆ **Nola bururatu zitzazun txapelketa batera aurkeztea?**

◆ Lehenengo ikustera joan nintzen beste bi lagunekin. Erreza iruditu eta hurrengo urtean nerone ateratzea erabaki nuen.

◆ **Zenbat artzain txakur txapelketa aurkeztu zara?**

◆ 1972tik 1990 arte, 18 urte jarraian gero bat urte egon naiz aurkeztu gabe txakurrik ez nuelako eta geroztik hor nabil berriz.

◆ **Noizbait txapelketa gelditu zara?**

◆ 1972an Elorrión Euskal Herriko txapelketa irabazi nuen eta geroztik Bartzelonan eta Gironan irabazi ditut. Duela bi urte janzkeraren premioa eraman nuen.

◆ **Txakur ezberdinak aurkeztu dituzu?**

◆ Bai, sei edo zazpi izan ditut urte hauetan.

◆ **Bat besteak baino hobea?**

◆ Lehenengoa, «Nere» zuen izena eta hura izan zen onena. Nahiko zaharra zela hasi nuen, 7 edo 8 urterekin.

◆ **Zenbat entrenatzen dituzu?**

◆ Lehen egunero, baina aspaldian nahi adina ez, zerbeza fabrikari lanean hasi nintzela badida 22 urte eta geroztik nahi hainbeste ez.

◆ **Zer duzu gustokoen, artzantza edo zerbezetako lana?**

◆ Artzantza nahiago, baina hemendik ez dago dirurik.

◆ **Egarrizten zarenean, sagardoa edo garagardoa?**

◆ Zerbeza nahiago dut.

◆ **Lagunekin afaria maiz edo noizbehinka?**

◆ Astean behin bai behintzat, ostiraletan eta sagardotegi garaian saiatzen naiz gehiagotan ahal izanez gero.

◆ **Oporrak Aranon edo herritik kanpora?**

◆ Kanpora joan izan naiz baina aspaldikoak herrian bertan pasa ditut, aukera izanez gero joango nintzateke baina beti lanpetuta egoten naiz.

◆ **Afizioren bat?**

◆ Ehiza ere gustatzen zait, azeritan, basurdetan edo erbitan, baina ez dut denborarik izaten.



Pelo ANTSA

Artzaino
ARANO

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



ZALAIN
JATEKIA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

EGUNERO JENBIA TER KATIA

Boda eta bankoteak ematen dira



belardenda

Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia I, behea • BERA • ☎ 948 630652



EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

PATXI

mozorroak

- Talde edo banakako mozerroak
- Telak eta osagarriak
- 1.400 ptatik aurrera ofertak ordaintzetan
- Mozorroak 0 hilabetetik aurrerakoentzat
- Ezkongaiendako broma artikulua

Larraoña, 2 • OLAZTI
☎ 948 468718 • 619 851116
Teodoro Ochoa de Alda, 15
Vistabella • BARAÑAIN
Nafarroako ospitalaren atzetan
☎ 676 383 874

PIKABEA

Molinero drogerian
galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

Nafarroako Haur Kantari txapelketan izena emateko epea otsailaren 28a arte zabalik

Kanporaketa saio bat martxoaren 24an egingen da Donezteben

TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Haur Kantari txapelketan izena emateko epea zabaldu du otsailaren 28a bitarte. Horretarako, 948 141812 edo 948 228232 telefonoetara deitu behar da. Hitzak eta partitura faxez, posta elektronikoz edo ohiko postaz honako helbide honetara igorri behar dira:

*Kantuzaleen Elkarteak
Descalzos 50, behea
31001 IRUÑEA*

euskokultur@terra.es

Edozein eskola-ikas-tolako Lehen Hezkuntza eta DBHko edozein ikaslek har dezake parte, banaka, binaka nahiz taldeka. Txapelketa bi kategoriatan banatuko da: Txikiak, 1990-94 urteetan jaioak eta gazteak, 1986-1989 urteetan jaioak. Ikastetxe bakoitzetik gehienez lau ordezkari parte hartzen ahal du, bi talde, bat txikien kategoriakoa eta bertzea gaztekoena eta bertze bi ordezkari, barka edo binaka.

Lau kanporaketa saio



Berako Ttipittarriak taldea, 1997an Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan egindako Haur Kantari txapelketaren azken saloan. Artetikoa

eginen dira: martxoaren 10ean Lodosako pilotalekuan, martxoaren 17an Irurtzango eskolako pilotalekuan, martxoaren 24an Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan eta martxoaren 31n Aribeko Batzar Etxeko areto nagusian. Herri bakoitzean nork parte hartuko duen irizpide moduan, lehentasuna izanen dute inguruko ikastetxetako ikasleak.

FINALA APIRILAREN 8AN IRUÑEKO GAJARRE ANTZOKIAN

Lortzen duten puntuazioaren arabera, hogeitasei sailkatuko dira apirilaren 8an, goizeko 11etatik aitzinera Iruñeko Gaiarre antzokian egingen den finalerako.

Epaimahaiari Arantza Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakasleak, Mikel Juaniz, Barañaingo Musika eskolako irakasleak eta La

Pamplonesako kideak eta Amaia Zubiria obes-lariak osatuko dute. Epaimahaiak doinua hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa eta kantuaren ekarpena izanen du kontuan. Laguntzaile gisa, musikariak ere eramaten ahal dira –gazteak edo helduak izan daitezke–, baina kantu lehiaketa denez, deusean gainetik kantua bera baloratuko da.

Sariei dagokienez,

kategoria eta modalitate bakoitzeko lehenengo bientzat izanen dira. Bertzalde, aurten Euskal Herriko Haur Kantari txapelketaren finala jokatuko da ekainaren 9an Hernanin. Nafarroatik, herrialdeko finalean epaimahaiak hautatuko dituen hiru ordezkari izanen dira.

IA BI MILIOI PEZETAKO AURREKONTUA

Urtero bezala, Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren laguntza izan du haur eta gazteko txapelketa honen antolatketan. Honetaz gain, Nafarroako Kutxa nahiz kanporaketak eta finala egingen diren herrietako udalen laguntza ere izan dute. Txapelketaren aurrekontua 1.900.000 pezetakoa da.

Helburu nagusia euskal kantagintza zabaldu eta haurrei erakustea da, haurren zaletasuna piztu. Modu berean, kantuaren eta musikaren bidez haurrak hezi nahi dira.


ERROTAZAR
 Eztegarra 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
 Agerra Auzoan

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
 Eztegarra 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Laudio pinturak

 Barne eta kanpoalde.
 Aurrekontua konpromiso gabe
 Tel: 948631602-610627059

bortzirudi 
BERA
 FOTOGRAFIAK, ENKUADEINAZIOAK, PLASTIKAZIOAK, FAXA, E-MAILA, SKANERBIRA, PAPERTEGIA, DISZINA, GIBAKOIA, IMPRENTA LANAK, SERBIZIOA, ARGAZKI MUNTAK, EMBUTILEAK, PUBLIZITATEA
 Eztegarra 26 behea Tel.: Faxa: 948 63 15 21

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
 Altzate, 5 • 948630083 BERA

Azkenean kaldereroekin segitzea erabaki du Besta Batzordeak

Otsailaren 17an egingen dira, eta entsaioak 13, 14 eta 16an

ASIER GOGORTZA

Azken urteotako partehartze eskasa eta antolakuntza arazoak ikusita, kaldereroak egin edo ez erabakitzeko bilkura deitu zuen joan den astean Berako Besta Batzordeak. Batzordeko partaideetaz gain aski jende gutti joan zen bilkura hortara, baina hala ere aurten bederen kaldereroen antolakuntza bere gain hartzea onartu du Besta Batzordeak.

Orain arte Gure Txoko elkarteak antolatzen zituen kaldereroak, baina arduradunak nekatu egin dira eta ohitura hau bertan behera gelditzeko arriskuan egondu da. Aurtengoa egingen dela segurua bada ere, heldu den urterako proposamen serio bat egiteko beharra azpimarratu zen bilera horretan, nola edo hala kaldereroak biziberritzeko.

GAZTEEN PARTEHARTZEA

Ohitura honek hurrengo belaunaldietan segida izan dezan, ezinbertzekotzat jo zuten gazteen partehartzea sustatzea, bertzenaz guraso eta hauren arteko kontu soila bihurtzen baita. Alde honetatik, ikastetxeetan kaldereroetarako deia egitea eta



Aurten Besta Batzordeak antolatuko ditu kaldereroak.

Argazkia: Goiko

ohitura hau sustatzea eskatu zuten bildutakoek.

Arazoak arazo eta kontuak kontu, aurten otsailaren 17an herrian izanen ditugu hungariarrak, eta espero dezagun azken urtea ez izatea.

Ibardingo errepidea

Otsailaren 9a arte moztua egonen da, oraindik zolaberritze lanak akautzen ari dira eta. Goizeko 8etatik 1etara eta arratsaldeko 2etatik 6,30etara ezin izanen da errepide hori erabili, larrialdi kasuetarako izan ezik.

Goya sarietako zilarrezko triangela eman diote Goikori

Espainiako 100 argazkilarik profesionalen argazkiak ikusgai izan ziren joan den urtarilaren 28,29 eta 30ean Zaragozan, Goya lehiaketaren barnean. Tartean argazkilarik berarraren argazki batzuk zuden, eta horietako batek zilarrezko triangela eskuratu du. Argazkilarik nafar batek sari hori eskuratzen duen lehen aldia da.

Argazkian, Goiko Uxueko erromerian ateratako argazkiari begira.



Flash

Dantza garaikidea

Lamixine BATEk antolatuta, Christine Burgos koreografoak 10 orduko dantza ikastaro trinkoa ematen du otsailaren 24 eta 25ean 15etatik 20etara. Izen ematea 943 660 330 telefonoan otsailaren 12a baino lehen.

Makilaje ikastaroa

Antzerki eta karakterizazioarako makilaje ikastaroa ere antolatu du Lamixine BATEk. Otsailaren 9tik aitzinera, hurrengo 5 ortziraletan, arratsaldeko 6etatik 9etara izanen dira saioak. Izen-ematea 5.000 pezeta bali du, eta otsailaren 8a baino lehen egin behar da 658 707 400 telefonoan.

© 948 631 462
Alzate 1 • BERA

Xiregil

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

**ERREKALDE
ostatua**

Tfnoa: 948630259 - BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Beti Gazte kirol eta kultur elkartearen historia liburu batean bildu da

«60 urte eta... Beti Gazte» liburuia idatzi du Aitor Arotzena kazetariak

TTIPI-TTAPA

«60 urte eta... Beti Gazte» izenburupean Lesakako kirol eta kultur elkartearen historia, anekdotak, datuak eta argazkiak bildu dira Aitor Arotzena kazetariak idatzitako liburuan.

1940. urteko abuztuaren 9an sortu zen Beti Gazte elkarte, Juventudes de Acción Católica elkartearen barnean. Gehien bat, futbolearen aritu nahi zuten gazteen ekimena izan zen, baina hasiera beretik, futbolaz gain, txirrindularitza, atletismo, pilota eta mendi atalak izan zituen. Horretaz gain, kultur ekitaldiak ere antolatzen zituen. Otsailaren lehen elkarrearen egoitzan egindako aurkezpen ekitaldian zera zioen egileak: «Futbolak alde guzietan agintzen duen garai honetan gezurra baldin badirudi ere, futbol zelaira egiteko edo epaileak ordaintzeko dirua kultur ekitaldietatik ateratzen zen orduan. Futbola ikustera jende gutti joaten zen. Antzerkia eta zinea ikustera, aldiz, jende pila bat joaten zen asteburuetan».

Liburuak bi edizio ditu, bata euskaraz eta bertzea gaztelaraz. Bakoitzetik 400 ale argitaratu dira, 350na



Futbolearen ez ezik, bertze kirolean ere aritu dira Beti Gazteko kirolariak. Liburutik bildutako argazkian, Nicolas Fagoaga txirrindulari lesakarra garalle 1942. urtean. Arg.: 60 urte eta... Beti Gazte

orrialderekin eta 2.500 pezetatan salgai daude herriko liburutegietan.

FUTBOLAREN BERRI, HAMARKADAZ HAMARKADA

Lehendabiziko kapituluetan, futbolen gorabeherak aztertzen dira hamarkadaz hamarkada. Elkartearen lehen estatutuetatik hasi, lehendabiziko Bidasoako Txapelketa eta Kopa Fronterako garaipenekin segitu eta futbol talde nagusiaren ibilbidea segitzeko modua dago

testu eta argazkien bitartez, garai bateko jokalariei eta laguntzaileei egindako elkarrizketekin lagunduta. Azken hogeitau urteotako talde nagusiaren emaitza guztiak eta azken sailkapenak ere ikusten ahal dira. Harrobiari eta Beti Gazte eta Gure Txokoren arteko derbiari eskainitako kapitulu bereziak ere baditu liburuak.

BERTZE KIROLAK ETA KULTURAREN DAKO TARTEA

Herri kirolaren tartean, sokatira taldeak

1990. hamarkadan lortutako arrakasta guzien berri jasotzen da. Nafarroako, Euskal Herriko eta Munduko txapeldu-izana baita kategoriaz ezberdinetan.

Pilota ere Beti Gazteren esku egon da 1985ean Arkupe elkarrearen berri ere biltzen du liburuak. Adibidez, 1944tik 1950 bitartean, Bidasoako txapelketa guztiak irabazi zituen Beti Gazteko bikoteak. Txirrindularitza, atletismoa eta azken urte-

tako areto-futbola, saskibaloia, xakea, mendia eta bertze kirolek bere tartea dute.

Kirola ez ezik, kultura ere landu du Beti Gazteak. Hasierako zine eta antzerki emanaldiak, 70. hamarkadako Jankintza Astea edo 90. hamarkadako argazki lehiaketaren berri jasotzen da. Lehiaketa honetan sarituak suertatu diren argazki guztiak ere bildu dira liburuan.

Herri historiaren zati bat ezagutzeko liburu interesgarria, beraz.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIMA
Bilma 41 • 948 637518-LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plaza Kabinatuak eta menuak
948637573 - LESAKA

Lurrinda Marian Mendiberrri
Estetika
Bilma Plaza 2 • 948637711 • LESAKA

ETXALAR

Teodoro Iribarren eta Santiago Mitxelorena musean txapeldun

Partxisean, Feliziana Zubieta eta Milagros Santesteban gailendu ziren

JOSEBA ETA NEREA

Urtero bezala Larraburua elkarteak mus eta partxis txapelketak antolatu ditu. Azaroaren 19an hasi ziren bi lehiaketak eta akautu berri dira. Igandero-igandero Larraburua egoitzan jokatu dira eta honakoak izan dira irabazleak: Musean Santiago Mitxelorena eta Teodoro Iribarren suertatu dira txapeldun. Bigarrenak, berriz, Jose Bertiz eta Martín Indaburu. Hirugarren lekua Prudentzio Etxabidek eta Jabier Irisarrik bete dute eta azkenik laugarren postuan Kornelio Irisarri eta Jose M^o Danboriena klasifikatu dira. Partxisean berriz, hiru sari banatu dira. Irabazleak Feliziana Zubieta eta Milagros Santesteban izan dira. Bigarrenak Marta Maia eta Meryte Santesteban eta hirugarren lekua bete dutenak Juliana Elizalde eta M^o Esther Bereau dira. Larraburua elkartearen egin zen sari banaketa. Orain, bertze txapelketa bat ere badute martxan dagoene-



Argazkiak: Nerea Mitxelorena

ko; Urdaiaspiko txapelketa. Dena den, zorionak irabazle guziet!

Langabetuei laguntza

Bertze urte batez, udalak hiru langile kontratatuzko diru-laguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Hartutako langileen kontratuen denboraldia zazpi hilabetetako izango da, maiatzaren 1etik azaroaren 30a arte. Bertzeaz bertze, hauek izango dira egin beharreko lanak: karriketako zuloak moldatu, bideetako seinalizazioa paratu, Olazarreko bidea hobetu, Sarrikuko zubia eta Ermitako bidea egoki-



tu, Azkuko iturria hartu, eskolak pintatu, iturriak konpondu, etab.

Dantza ikastaroak

Badira urte dexente dantza-ikastaroei negu aldean hasiera ematen zaiela. Aurten urtarriaren erdialdean ekin diete entsaioei. Bertze urtetan eskola zahar-

tan egiten buzen ere, aurtentokiz aldatu dute eta Landagain eskolan bilduko dira apuntatariko 50 dantzariak. Irakasleak Mirari Ansalas, Itziar Iriarte eta Maria Astier dira eta hauek arduratuko dira lau taldeetan bantutako kide guzietan inguruko hainbat dantza erakustez.

Flash

- ♦ **Iturraldeko zabortearen** egoera kaxkarrak dela salatu dute, edozein gauza botatzen delako. Hau aldatzeko intentzioz udalak bando bat ateri du zaborte honetara obra-hondakinak bakarrik botatzen ahalko direla adieraziz. Gainerako zaborrak botatzeko hiri-hondakinen mankomunitatearekin harremanetan jarri beharko da.
- ♦ **Herri-sarrerako errepeidea** Duela lau urte Etxalarko bidegurutzetik Afegiraino doan errepeidea moldatu zuten. Herrira ailegatzeko gelditzen den zatia berriz, bere horretan utzi zuten. Azken bi urtetan egoera kaxkartu egin zaionez, udalak Nafarroako Gobernuaren eskuartzea eskatu zuten. Erantzuna hau izan da: Zuloak bakarrik konponduko ditu, errepeidea hobetzeko aurrekonturik ez duelakoz.
- ♦ **Ur-depositoa** egiteko 28,70 milioi pezetako aurrekontutik 22,30 milioi Nafarroako Gobernuak jarriko du.

LEGARRA
Legarra, 9 • 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espreziarekin ere egiten dira

HARITZPE
948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

KOXKILA OSTATUA

Zarandía, 4 • LESAKA

IGANTZI

Iñauteak heldu den astean ospatuko dira

Zuhaitz landaketa otsailaren 8ra gibeleratu da eguraldiarengatik

OSKAR TXOPERENA

Iñauteak gainean ditugu, heldu den astean, otsailaren 16 eta 17an ospatzekoak baitira. Ortziralean Berrizaungo itzulia eta larunbatean, Irisarritik hasita, gaine-ko auzo guztiak, Herrikoetxe-ko afariarekin akautuz. Aurten txartelak paratu behar omen dituzte afari horretara joateko. Haurrek ere beren iñaute-besta izanen dute larunbat arratsaldean, eta otsailaren 21ean eskolako mozorro eguna eta Ortzegun Gizen eguna ere.

Herrikoetxea

Ilbeltzaren 31n zinegotziek herriko arkitetkourekin egindako bileran mediku-kontsulta

Bazarreara eramateko eskaria berriz ere egi-tea erabaki zuten. Osasunbideko teknikariak zenbait aldaketa eskatu omen zizkion lehen aurkeztutako proiektuari, eta, aldaketa horiek egin ondotik, otsailaren 28a baino lehen egin beharko du eskaera Herrikoetxeak. Nafarroako Gobernuak ez badu oraingoan ere onartzen leku-arazo latzak izanen dira eskolan heldu den ikasturtean.

Herrikoetxearekin jarraituz, Gaztainbakarreko bidegurutzeta edo "kruzeroa" ez dela momentuz moldatuko jakinarazi dio Nafarroako Gobernuak Herrikoetxeari. Gai hau dela medio, eztabaida izan zen abenduko bilkuran.



Neguko txapelketaren partiduak pilotalekuan

Aspaldiko partez, ilbeltzaren 21ean jokatu ziren Igantzin txapelketa ofizial bateko pilota partiduak, Neguko Txapelketaren barrinean Bortziriak-Txaruta kanporaketaren itzuliko ihardunaldikoak, hain zuzen ere. Gaur egun Txaruraten nagusitasuna aitortu behar da, horretaz ez dago zalantzarik, eta lau mailetako partiduetan aisa nagusitu ziren, kadeteetan izan ezik. Azken partidu honetan, Larralde-Etxegarai bikotea Arraztoatarrei ustekabea emateko zorian egon ziren, partidu eder baten ondotik. Argazkian, benjamin mailan jokatu zuten Imanol Goienetxe igantziarra eta Jon Alzuri arantzarra ageri dira, Irigoien-Madariaga Txarutako bikotearekin batera.

Bertan, Herri Taldeko zinegotziek, moldaketa honi buruz aintzineko legegaldian emandako pausoen berri eman ondotik, obra ez egin izanaren arrazoia «PNV/EAren gestio falta edo gestio eskasa dela» adierazi zuten.

Berrizaunen paratu nahi duten enpresa be-

rriazen arazoa ere bere horretan dago. Proiektuak zituen zenbait akats zuzendu ditu ORSAk, baina, Herrikoetxeak ez du oraindik espedientea Nafarroako Gobernura bidali.

Arkupeak eta Zahar Etxea

Arkupeak Elkarrekin an-

tolatuta otsailaren 9an izanen dute besta herriko bazkideek. Meza izanen da eguerdian eta ondotik bazkaria musika-rekin. Bertzalde, Baratzondo elkartean ere iñaute-afaria izanen da otsailaren 16an. Afaria 2.300 pezetaren truke emanen da eta 10erako eman beharko du izena.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 948635290 **ETXALAR**

BERRIZUN S.A.
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezoak
 Mantenimendu mekanikoak
 Torro, fresadoreak, errektifikadoreak
 Igantziko Bentak • 948 627572 • Faxa: 948 637508

Alberto RETEGI
abokatua
 Altzate 17
 BERA
 948 630 763

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gilotina...)
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
 Igantziko Bentak • 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
 • Lentillak
 • Ikusmen azterketa orokorrak
 • Begietako tentsioaren kontrola
 • Haurrei errebisioa egiten zaie
**Eta behar izanez gero...
 ERA GUZTIETAKO
 BETAURREKOAK
 DITUGU ZURETZAT**
 Bidasoa karrika, 8 • BERA • 948 63 07 53

Asteburu honetan, otsailaren 8tik 10era ospatuko dira Iñauteriak

Emakumeen afaria, mozorro zurien puxka-biltzea, Haurren Eguna... denetik izanen da

ELIXABET ETA GARBINE

Aurten ere, bertze herrietan iñauterien giroa somatzen hasi da eta gurean ere gainean ditugu. Urtero bezala, ortzegunean eskolako haurrek prestatutako bizkarrekoak emanen dizkiete mozorroei.

Aurten mozorro zurri koadrila ederra ibiliko da etxe eta baserrietan bama, hamabortz lagunek eman baitute horretarako izena. Gauean berri, herriko emakumeek izanen dute besta egiteko aukera beraien afarian.

Ortziralean, otsailaren 9an, mozorro zuriez gain, haurrak ere ibiliko dira etxez etxe puxka-puxkan. Gauean, Gazte Asanbladak antolatutako, afaria egingen dute gazteek. Joan nahi duen guzientzat irekia izanen da afaria.



Duela urte pare bateko mozorro zurri taldea. Zerbait egiten baldin bada, ederki jan eta edatea da.

Argazkia: Elixabet Iturria

Buzo eguna ere izaki egun hori, buzoz jantzitza agertzea izanen da hoberena.

Larunbatean haurrentzako eguna izanen da, beraien disfrazak erakutsi eta gero be-

rendua izanen baitute. Lehengo urtean bezala, aurten ere akaso mozorro beltzak jautsiko dira herrira eta ilunabarretan herritik bama ibiltzerakoan, kontu eman beharko dugu hauekin.

Azienden errolda otsailean egingen da

Aurten bertze urtean baino beranduago egingen bada ere, Herriko Etxeak egiten duen azienden errolda otsailaren 12, 13 eta 14an

eginen du. Hori dela eta herriko abeltzainek Herriko Etxetik pasa beharko dute, goizeko 9,30etatik eguerdiko ordubata arte, bakoitzak bere azienden berri ematera.

Eskulan ikastaroari dirulaguntza

Azken urteotan herrian egingen den eskulan ikastarora joaten direnentzat, Herriko Etxeak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu dio. Denetara hamabortz-hemezortzi bat pertsona elkartzen dira asteartero. Azken urteotan bezala gertatzen baldin bada, diru kopuru tiki bat jasoko dute. Bertan egingen dituzten gauza ederrak ikusteko aukera izan dugu eta datozen urteetan ere hor segitzeko dirulaguntza honen beharrea daude.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pertsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

Zire ingunsa klase guzifako insektuz
(xomoto, zinaume, amiarra, kukuxa...) eta
arrato-kagutuz garbitu nahi baduzu, delat
Gu arduratuko gara horetaz.
Ternita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES
☎ 948630155
BERA

KAXULA

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

**MAGNETOTERAPIA
NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetes
- Asma
- Buruko mina
- Oinero igerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bieta alfertua
- Estrabismoa
- Begi leusoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK

- Sixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lumbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 10etatik 12etara. Arratsaldez 3-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

MARTIKO
Gure baserrietako produktua

☎ 948 625016 + Fax: 948 625036
Alkalaga Industrialdea + BERA

SUNBILLA

Euriari kontra eginez, giro ederra izan da aurtengo Iñauterietan ere

Hamalau karroza ikusgarri atera ziren igandeko desfilean

JAIONE ETA ALBA

Hiru egunetan euria egin bazuen ere, giro ederrean pasatu dira Iñauteriak. Ortziral goizetik hasi eta igande arratsen artean ederki pasatzeko ekitaldiak gozatu ahal izan zituzten sunbildarrek.

Ortziral goizean gazteak eskean hasi ziren baserrietan barna. Atsaldean, haurren txokolata eta dantzaldia zubi berrian egin zen. Udaletxeko arkupeak obretan daude eta. Emakume afarian inoiz baino jende gehiago izan zen, elhun pertsona pasatxo bildu baitziren. Urtero bezala, afa-londonan sorpresa izan zuten eta aurten akordiolari talde bat izan zen, herriko emakumeen afa-ria animatzen. Ondotik, urtero bezala, dantzaldia egin zen elkartean.



Asterixek ongi zioen bezala, «erotuak daude erromatar hauek».

Larunbatean, gazteak puxkak biltzen aritu ziren herrian barna, gauean, kristoren martxa izan zen herriko ostatueta.

Igandean, goiz-goizean hasi zen mugimendua herrian. 11,30ak aldera atera ziren karrozak Leku-Eder ka-

rrikatik. Urtero ardoa, salda, gaztainak, tortilla eta opila banatzen duten karrozez gain, bertze hamalau atera ziren: Miss Sunbilla, Gran Hermano, 50x15, Copa Davis, Aquarium, Harriketariak, Zirkoa, Autoeskola, Timara, Zerua eta Infernua, Lehengo

ikazkinak. Erromatar-
rak, Hamalau atso tron-
peta jotzen zazpi asto-
ren gainean eta Behi
Eroak.

Argi dago urtetik ur-
tera gauza berriak egi-
ten ahal direla aspaldi-
ko kontuekin edo urte-
an pasatutakoekin.

Igande atsaldean,

Iñauteriak akitzeko he-
rri bazkaria egin zen
Ulibeltzak elkartean eta
gero, Jalisko Band-ekin
dantzaldia izan zen.

Medikuaren etxeak jabe berria dauka

Lehendabizikoa hu-
tsean gelditu ondotik,
urtarrilaren 26an egin
zen medikuaren etxea
saltzeko bigarren en-
kantea. Hogeita lau mi-
lioni terdi pezetako pre-
ziotik hasita, azkenean
29.750.000 pezetako
prezioan eraman zuen
Jorajuriak.

Antzakaitz taldearen bilera

Larunbat honetan,
otsailak 10, arratsalde-
ko 3,30etan Antzakaitz
kultur taldearen bilera
izanen da Iturburu os-
tatuan. Eguberriak eta
Iñauteriak pasatuta, As-
teburu Kulturala anto-
latzeko bilera izanen da.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afa-ri eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

Ibarrola Mertzeria

Haurrendako arropa

0-14 urte

Perrukia kalea 6 - Donostia

948450463

Negarako modelo berriak

BEINTZAKO
OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



ITUREN • ZUBIETA



Joaldunen joan-etorria bete da aurten ere

Joaren burrunba zabaldu zen urtarrileko azken astelehen eta asteartean Iturenen eta Zubietan

TTIPI-TTAPA

Ituren, Zubieta eta Aurtizko joaldun eta mozorroek urteroko ohitura bete eta herriz herri eta auzoz auzo ibili ziren ilbeltzeko azken astelehen eta asteartean. Astelehenean, Zubietatik abiatu ziren joaldunak eta Aurtizkoekin gosaldun ondotik Iturenera jautsi ziren. Iturengo joaldunak Lasagako zubira atera zi-

ren bertze taldeetako joaldunen bila. Ondotik, hiru taldeek elkarrekin ibilaldia egin zuten Iturenen. Gero, talde bakoitzeko kideek norbere txokoa bazkaldu zuten. Asteartean, bidea alderantziz egin zuten. Iturengo joaldunak herritik abiatu eta, Aurtizkoak bildu ondotik, Zubietara joan ziren, bertako joaldunekin elkartzeko.

Joaldunekin batera,

mozorroak ere harat-honatean ibili ziren, hautsa, iratzea, gorotza eta kolperen bat edo bertze banatuz. Hartzak ere bere lana bete zuen eta, katearekin lotua egon arren, emakumeak -batez ere kanpotik etorritakoak- izitzen aritu zen.

Urtero bezala, hainbat eta hainbat izan ziren bi egun horietan Ituren eta Zubieta bisitatu zutenak.



Goitlan, Zubietako joaldunak ezkerreko argazkian eta Iturengoak eskuinekoan. Ohiturari eutsiz, batzuk bertzeel bisita egin eta itzuli zieten. Beheltian, mozorroak beraien buila eta zerrikeriak hedatu zituzten urtero bezala, Zubietan batez ere.

Argazkiak: Karmelo

• Igeltseritza • Pintura • Iturgintza
• Zurgintza • Elektrizitatea • Brikolaia...

BEHAR DITUZTEN **LAN TXIKI** HORIENTZAT

• ERREFORMAK • MUNTAIAK • KONPONKETAK

GREMIO GUZTIAK

zure zerbitzura:

SERVI • LAN

Alicia T. Erlanz

SERVI • LAN

Elizagibela, 5 • behea • DONEZTEBE

Tel.: 948 456193 • Faxa: 948 450 760



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa



cpelizon@pnte.cfnavarra.es

• ELIZONDO •

☎ eta Faxa: 948 581 808

Matrikulatzeko epea: Otsailaren 26tik martxoaren 9ra
ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!



Braulio Iriarte karrika • ELIZONDO

☎ 948 581 807

☎ 948 581 853

ANTXITONEA

Jatetxea - Ostalua
Hotel - Trinketea

INAUGURAZIOA

2001eko otsailaren 17an,
larunbata

Goizeko 10etan

Trinketeko ateak zabalduko dira

Goizeko 10,30etan

Pilota partida (pala):

Burguete eta Galarreguy (Antxitonea) ELIZONDO
Gerrikabeitia (Ramuntxo trinkete) eta Sagarzazu (Kurpil kirolak) IRUN

Goizeko 11,30etan

Pilota partida (eskuz, profesionalen artean):

Muskarditz eta Mayte
Ibarrola eta Biscouby

Eguerdiko 2,30etan

Bazkari Herrikoa

(Kristian musikariarekin eta Lizaso eta Egaña bertsoariarekin)

Gaueko 12,30etatik aurrera

Trinketean, gaupasa JOSELU ANAIK taldearekin.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

Batxilergoetan eskaintza OSOA

LEKAROZ: ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ **LOGSE BATXILERGOA I eta II**

- Natur eta Osasun Zientziak / Injinerutza Ibilbidea
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologia

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

ELIZONDO: ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ **Lanbide Sarrerako Programa Berezia**
Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ **Lanbide Sarrerako Programak**


- Bulego eta Saltetxe Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa**

- Administrazioa eta Finantzak



INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **5 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 20.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kirol-degia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- ◆ **Jangela: DBHko** 1. ziklokoentzat.
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



I.E.S. LEKAROS ELIZONDO B.H.I. Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROS

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROS (Baztan)
☎ 948 58 18 03
☎ 948 58 18 36
✉ Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
☎ 948 58 18 40
✉ Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es

Izen ematea:

- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:
2001eko otsailaren 26tik martxoaren 9ra
- ◆ Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
2001eko maiatzaren 2tik 11ra

OHARRA. Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrak Mariano Izeta omenduko du aurten

Kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea martxoaren 3an akituko da

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 22an ospatuko den Baztandarren Biltzarra Mariano Izetari eskainia izanenda eta horregatik, egun berezi hori iragarriko duen kartelak gai hori isladatu beharko du: Mariano Izeta eta Baztandarren Biltzarra.

Lehiaketa honetan aurkeztuko diren kartelak martxoaren 3ko eguerdia baino lehen egon beharko dute Baztandarren Biltzarra Elkartearen esku (22 PK, 31700 Elizondo). Aitzineko urteetan bezala, 50x70 zentimetrokoak izanen dira gehienez eta gisa honetako lehiaketetan erabili ohi den sistemarekin

igorri beharko dira. Epaimahaia Itziar Mena diseinugileak, Ana Larruy kultur teknikari eta margolariak, Xabier Santxotena eskultoreak, Ines Izeta Marianoren alabak eta Itziar Aleman eta J.J. Muru Baztandarren Biltzarra Elkarteko kideek osatuko dute. Irabazleak 50.000 pezeta irabaziko ditu.

GAN DEN URTEA EKITALDIZ BETEA

Baztandarren Biltzarra Elkartek ekitaldiz bete izan zuen 2000. urtea. Baztango Mendigoizaleekin batera Eneko Pou eta Bortzirietako espedizioaren diapositiba emanaldiak eskaini zituzten. Santa Age-

dan bertso afaria eta tailerra egin zuten, udan herrietako bestetan gantorri autobusa antolatu, Erratzuko bestetan Taun-Taun antzerki taldearen emanaldia, Elbete eta Anizko bestetan Gorriti eta bere animalien emanaldia eta Gartzaingo bestetan bertsolariak ekarri zituzten, gan den urteko Baztandarren Biltzarra antolatzear gain. Aurten ere ekitaldi aunitz prestatzea espero dute.

Oronoz-Mugairiko pilotalekua

Oronoz-Mugairiko Segundo Anaia pilotalekua moldatzeko 22.861.521 milioiko aurrekontua duen proiektua onartu du Balleko



Uztailaren 22an ospatuko da Mariano Izetari eskainiko den Baztandarren Biltzarra.

Udalak. Kirol eta Gaztediaren Institutuak zazpi milioiko dirulaguntza emanen du. Florentino Goñi Oronozko alkateak adierazi digunez, «eskualdean, erremonteko frontoiaren neurriak dituen pilotaleku bakarra izanenda».

flash

Balleko telefonoak listinean

Telefónicak egiten ari den estudioak aitzinera egiten badu balleko telefono guztiak Baztan izenpean topatu ahal izanen dira hurrengo listinean (Orrialde Xuriak) eta ez orain arte bezala, herriz herri banatuak. Azken liburuxkan proba egin omen du Telefónicak, baina neurria ez omen da behin betikoa, ikerketa bat baizik.

103 urtetan hil zen Maria del Claustri Bartoli

Azkeneko zortzi urteak Elizondoko M^a Josefa Recio Zahar-Etxean eman dituen María del Claustro Bartoli Miro monja ilbeltzaren 22an hil zen, 103 urte zituela.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoa, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

☞ DONEZTEBE

EA eta Kataluniako ERCko ordezkariak herrian bildu ziren

Bazkal aitzinetik, Iturengo iñauteriak ere bisitatu zituzten

TTIPI-TTAPA

Eusko Alkartasuna eta Kataluniako Esquerra Republicana de Catalunya alderdiak IX. Jardunaldi Parlamentarioak egin zituzten joan den astean Euskal Herrian. Urtarrilaren 29an ingurua bisitatu zuten eta Donezteben bazkaldu zuten. Goizean, Ituren eta Zubietako iñauteriak ikusten izan ziren. Bilkura horien xedea, «Jose Mari Aznarren gobernuak eta PP-PSOE itunak abertza-



ERCko Josep Lluís Carod eta EAKo Begoña Errasti, Iturengo Udaletxeko ganbaran.

letasunaren aurka egindako erasoetara egi-

tea da», Begoña Errastiren erranetan.

Gay eta lesbianen topagunea

Baztan-Bidasoako gay eta lesbianen topagunea egingen da otsailaren 10ean, larunbata, arratsaldeko 4etan Doneztebeko Kaxerna ostatuan. Hemendik aitzinera, hilabeteko bigarren larunbatean elkartzeko intentzioa dute, eskualdeko herri ezberdinetan. «Zonaldeko gay eta lesbianok elkartzeko deia luzatu nahi dizuegu, animo, etor zaitez eta elkar ezagutuko dugun».

▼ flash

◆ Mendaurren Institutuko ikasbidaia

Mendaurren Institutuko DBHko 4. mailako ikasleen ikasbidaiarako antolatutako zozketaren bigarren saria -zate bat- atara ez denez, berri ere zoztu egin dute. Oraingoan, 6.828 zerbakia da saritua.

◆ **Errekako haundien eskubaloit taldea** ez dabil batere fin denboraldi honetan. Hau idazterakoan, azkena da eta Bigarren maila nazionalari eusteko nahiko lan izanen duela ematen du. Borrokan segitu beharko.

☞ BERTIZ

Merkatari elkarteak hiru erosketa bonoak zozketatu ditu bezeroen artean

Hiruak-Bat elkarteak landa etxeek ere astebukaerako egonaldia zozketatu dute

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatal Elkarteak urtarrilaren 22an egindako 50.000 pezetako hiru erosketa bonoen zozketan honako zerbakiak izan dira saridunak: 212.643, Doneztebeko Sorozabal goxotegian banatua; 251.146, Sunbillako Estankoa saldua eta 253.357, Elizondoko Galarregi dendan saldua. Dagoeneko, bi saridun azaldu dira. Sunbillako Estankoa saldatutako txartelaren jabea Maria Angeles Hernandezena sunbil-

darra da eta Elizondoko Galarregi saldatutakoarena, Maria Teresa Lasarte elizondarra. Irabazleek Bertizko Turismo Partzuergoarekin kontaktoan jarri beharko dute, erosketa bonoa eman ahal izateko. Txartela Bertizko Merkatal Elkartera bidali beharko du (Bertizko Turismo Zentroa - 31720 Oieregi). Zalan-tzak argitzeko 948 592323 tel.era deitu. Bertalde, Hiruak-Bat elkarteak Landa etxeek urte bat darabate bere bezeroen artean inkestak egingen. Bezeroek jar-tzen duten interesa eta

denbora eskertzeko, urtean bi aldiz egingen dituzte elkarte honek. Urtarrilaren 18an egindako bi pertsonendako astebukaeraren zozketan Iruñeko Rakel Jimenez Garcia suertatu da saritua. Asteburu batez Berako Iratxe Borean izan zen Rakel.

60.000 bisitari izan zituzten ia parkeak

Joan den urtean 60.804 bisitari izan zituzten Bertizko Parkeko Naturaren Interpretazio Zentruak. Gehienak abuztuaren (12.532), uztailaren (8.696), ekainaren (7.615), urriaren



Abuztuaren 12.532 lagun pasatu ziren Bertizko Parkeko Interpretazio Zentrutik.

(6.306) eta maiatzaren (6.071) sartu ziren. Aipatu behar da otsailetik uztailera jardinarik itxiak egon zirela obren on-

dorioz. 1993an zabaldutik 400.000 lagun baino gehiago pasatu dira Bertizko Interpretazio Zentrutik.

GOIZUETA

Herria hankaz goiti dago

Zeharbideko obra-hondakinekin bidegorria egiten ari dira

ESTEBAN AROTZENA

Ikaragarrikoa da aste hauetako herriko mugimendua. Begibistan dagoen bezala, Madaleneko zubitik goiti hasi dira zeharbidearen lanak, baina ez hori bakarrik, lur azpian sartzen ari baitira besteak beste saneamenduko eta gasaren hodiak ere. Aipagarria da, baita ere, Udalak bere gain hartu duela (subentziorik gabe, alegia) fibra optikoaren sarea herrian zabaltzearen ardura. Telebistek, ordenagailuek, etabarrek hori erabiliko omen dute etorkizunean, eta horrelako

aukerarik beste urte batzuetan izanen ez denez, zeharbidean eta gasarentzat irekiko diren zuloetan tritubo izenez ezagutzen den aurrerapen hau sartuko da.

BIDEGORRIA ALDUNTZINGO ZENTRALEKO KANALEAN

Trabesiatik ateratzen diren obra-hondakinak ezin hobekiago etorri dira aspalditik Udalak duen asmo bat burutzeko, bidegorriarena, alegia. Alduntzingo zentralaraino ura eramaten zuten kanalea igarotzen den lurren jabeekin konpondu ahalean, obra-hondakinekin betetzen



Zeharbidearen lanak aprobetxatuz saneamendu eta gasaren hodiak eta fibra optikoaren sarea sartzen ari dira.

ari dira aipatutako kanalea. Lau metro zabaleratik goitiko bide ederra gelditzen da. Olaberri aldetik hasi dira eta auskalo non bukatuko duten.

Umore-Onaren urteko batzarra

Urteko asanblada oro-

korra egin zuen Umore Ona elkarteak ilbeltzaren 27an. 206 bazkide-tatik 22 bakarrik azaldu ziren. Iazko gastuak jeisten dituen aurrekontua onartu zuten soziedadean. Egunkarietako iragarkiei, Zaharren Egunari eta pilota eskolari asigantutako

partidetatik etorriko da, besteak beste, murrizketa hau.

Azkenik esan, hurrengo bi urtetan Jabier Etxegia izanen dela lehendakariorde eta Juan Tomasena idazkari. J.J. Elizegi, Bakartxo Uitziz eta Pili Narbarte izanen dira bokal berriak.

ARESO

Asteburu honetan igaro dira Iñauteriak

Guraso Elkarteak Zirkoa atera zuen

JUANA MARI SAIZAR

Iñauterien garaia ailegatu da eta Areson otsailaren 2, 3 eta 4an ospatu dira. Eskolan ostiral arratsaldean hasiera eman zioten herriko umeek. Denak moztururik herrian zehar ibili ziren, «Altxoraren bila» jokua eginez. Bukatzeko, merendola

izan zuten. Gauean, Lagunarteko neska-mutilak herri afariarekin hasiera eman zioten eta igande-gauera arte iraun zuten. Larunbat goizean, baserri berrir puskatzen ibili ziren eta igande eguerdian herrian etxez etxe. Larunbat gauean biltzen da jende gehien, herri afariarekin. Aurten, sagar-



Urtero bezala, eskolako umeek eman zioten hasiera iñauteriel. Artibekoa

doa kupeletik edanez aritu ziren eta ondoren dantzaldia izan zuten Modestorekin goizaldera arte. Karroza prestatu zuten Guraso Elkarteak eta aurtengo gaia Zirkoa izan da. Umetxo guztiak karroza gainean ibili ziren herrian.

Guraso Elkartearen kontzentrazioa

Guraso Elkarteak jakinarazi digunez, «urtarrilaren 27an, berrogei lagunek kontzentrazioa egin genuen plazan, "Eskola utzi pakean" zioen pankartarekin. 25ean, bilera egi-

ten ari ginela, gelako atea itxi zigun alkate-sak eta hori salatu nahi genuen».

Traktoreen ITV

Traktoreen ITVa pasatzeko eguna martxoaren 12a izango da Plaza Zaharrean.

Iñauteriak umore ederrean joan dira

Incansables txarangak eta Mindegia anai-arrebak eta Xapo taldeek jarri dute musika

JOSEBA AZPIROZ

Beste urte batez umore ona eta giro bikaina nagusitu dira iñauterietan. Gazteek etxez etxe eta baserri baserri egiten duten eskearekin batera, gero eta gehiago dira herrian atsoguratuak ateratzen direnak. Gainera, urte-urte urtera karroza ikusgarriagoak ikusten dira. Aurten, argazkian ageri denez, astronautak ere ailegatu dira, kothete eta guzi. Iñauterietan musika ezin da faltatu eta aurten Incansables txarangarekin batera, Xapo eta Mindegia anai-arrebak aritu dira.

Suhiltzaileen ibilgailu berria

Leitzako suhiltzaileek badute ibilgailu berria. Udalak, Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzarekin, Nissan Pick-up ibilgailu berria erosi du suhiltzaileentzat. Bost plazako ibilgailu honen prezioa, 41 milioikoa da.

Mendibil argazki lehiaketara 60 lan aurkeztu dira

Mendibil menditaldeak lehen aldiz antolatutako argazki lehiaketara irabazlea zein izan den hau idazteko garaian ez badaki gu ere, aurreratu dezakeguna



Urtetik urtera gehiago dira kalez kale pasiatzen diren karrozak. Aurtengoan astronautak, erromatarak, rockeroak... denetik ikusi dugu.

da hirurogei argazki aurkeztu dituztela. Epaimahaikoek, beraz, izanen dute non berezia.

Irailekuen komenioarekin gorabeherak

Iraileku edo garo-lekuen komenioa egin ez duten hogeita bost leitzarre egindako alegazioei Nafarroako Gobernuak emandako erantzuna ikusi ondoren, haiek partikulartzat hartzen

zizuten lurra herri-lurra direla erabaki du Udalak. Beraz, hamabost eguneko epean ez badute hitzarmena eskatzen, dagokion kanoa jarriko diete.

Zubillaga-Saralegik erosi ditu hiru egur lote

Leitzako Zubillaga Saralegui SL enpresak gelditu ditu Udalak subastara ateratako azken hiru loteak. Insignis pi-

nuaz eta alertze japoniarraz osatua eta Artzabaleta eta Trunkadan dagoen lehenengo lotearengatik, 13,2 milioi pezeta ordainduko ditu. Bigarren lotearengatik -Iarizio eta insignis pinuak, Artzabaleta eta Trunkadan-, 7,2 milioi ordainduko ditu eta hirugarrenarengatik, ia 9 milioi. Hirugarren lote hau Ibarla alderdian dagoen haritz amerikanoaz osatua dago.

Langabetuak kontratatzeke dirulaguntza eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari

Eskaria onartuz gero, hiru langile hartuko lirateke

KONTXI KLABER

Aranoko Udalak, urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran, Nafarroako Lan Zerbitzuak langabezia dau den pertsonak kontratatzeagatik eskaintzen duen dirulaguntza eskuratzeko eskaera egin du hiru pertsonentzat.

2000. urtean, David Narbarte herriko gaztea lau hilabetez kontratatu zuen Udalak, egiteko zeuzkan hainbeste lanetan aritu zen. Esate baterako, itxiturak egiten edo mendiak garbitzen aritu zen.

Laguntza hori eskuratzuz gero, asmo bera dago aurten ere.

Dirulaguntza onartuz gero, hiru langile ariko lirateke herrian beharrezkoak diren lanak egiten.

Arbibokoa



BAZTAN

Zozaia-Oronoz errepideko lanak 2.249 milioitan eginen dira

Zati bat Mariezkurrenak eginen du eta bertzea Azpiroz-Saralegik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako Departamenduak 2.249 milioi pezetan eman ditu Oronoz eta Mugairi arteko errepide berriaren lanak. Errepide berriak 2,7 kilometroko luzera izanen du, gaur egun Belateko lanak akituak dauden 15,100 kilometrotik hasi eta Oronoz inguruan dagoen 17,900 kilometrorra bitarte. Errepide berriak trazatu ezberdina izanen du eta Iruñetik Doneztebe aldera gatzela, eskuinaldean geldituko da. Trazatu berriak hamabi aldiz gurutzatzen du Marin erreka. Eragin kaltegarriak saihesteko eta erreka ez ukitzeko, luzera handiko zubiak eginen dira. Lanak egiteko hiru urteko epea izanen da eta abudo hasiko omen dira.

KILOMETRO TERDI MARIEZKURRENAK, GAINERAKO AZPIROZ-SARALEGIK

Lanak ematerako or-

duan, Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak bitartean banatu du proiektua. Lehendabizikoa, kilometro terdikoa, harrobi zaharra eta atsedene gune inguruan hasen da eta Zozaia lotura barne du. Lehiaketa bidez, Mariezkurrena eraikuntza enpresari eman zaio, 1.054 milioi pezetako aurrekontuarekin. Hau da, haserako prezioetik %4,1eko jautsiera.

Bigarren zatiak 1,2 kilometro ditu. Mugairi jautsiko den bertze bide tikiago bat eginen da. Errepide nagusian Mugairiko lotura ere eginen da. Bertan, N-121-A edo N-121-B errepideak (Doneztebe edo Baztan aldera) hartzeko bidegurutzera eginen da, errotonda itxurarekin. Lotura honen ondotik, dagoeneko eraikitzen ari den Mugairiko tunela dago. Bigarren zati hau Azpiroz eta Saralegi enpresak eginen du, 1.195 milioi pezetaren truke, hau da, haserako prezioetik %4,4ko jautsierarekin.



Elizondoko San Francisco Javier eskolakoak eskiatzen eta antzeztzen

Urtarrilaren 7an, Elizondoko San Francisco Javier eskolako seigarren mailakoak -goitiko argazkian- Izabara joan ziren, 17. Eskolarteko Ipar Eski kanpaina parte hartzera. Goizean eskiatzera eta arratsaldean herriak, museoa... ikustera joan ziren. Beheitiko argazkian, berriaz, bigarren mailakoek Zahar Etxeko amaxi eta aitaxiei eskeinitako antzerkia ageri da. Neska-mutikoei aipatu digutenez, «aitaxi eta amaxi guziak arras kontent gelditu ziren».

Argazkia: San Francisco Javier eskola



Elizondoko Santiago karrikaren egoera penagarria dela salatu dute bizilagunek

Elizondoko bizilagun eta merkataritza talde batek bere arrenkura azaldu du Balleko Etxean, Santiago karrikaren egoera dela eta. Idatzia sinatzen duten 61 bizilagunen ustez, «bi urte baino gehiago daramazkigu hirugarren munduko baldintzetan, zola xehetua eta mailtua dago. Egoera jasangaitza egin den arte ixilik egon gara, baina aski da». Egoera hori larriagoa bihurtzen da euria egiten duen egunetan, «karrikan pasatzea egiazko balentria baita, putzu, zulo eta autoen zipriztinen artean».

Egun horietan, ostatu eta denden aktibitatea murrizten da, «kontsumitzaileek segurtasun handiagoko lekuetara joaten direlako». Izan ere, espaloi batzuk ere egoera berdintsuan daude. Idatziaren egileen ustez, «turismoa indartzeko egiten diren salo guziak turistek Elizondoren erdian topatzen dutenarekin hondatzen dira». Honenbertez, Santiago karrika lehenbailehen moldatzea eskatu diote Balleko Udalari eta bere arduraz ez bada, dagokion lekuan eskaria Udalak berak egitea.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatu • aseguru orokorrak

☎ 948 581468 • 948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



AMAIUR • ☎ 948453060



JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Elizondok eta Arizkunek badute alkatea, Arraiozek oraindik ez

Ana Mari Marin eta Francisco Rekartek beteko dituzte karguak

TTPI-TTAPA

Espero bezala, ez zen hotei inor aurkeztu kargu betetzeko prest eta ibeltzaren 28an eginiko batzarreak Ana Mari Marin izendatuaren Elizondoko alkate. Marinek adierazi zuenez, «herri osoaren laguntza beharko dut eta lanerako prest dauden pertsonak izatea espero dut». Kanposanduko lanetarako bi lagun ha omen ditu, Santiago Aldako eta Agustín Olabe. Azken honek, euskarazko itzulpenekin laguntzea ere eskatu zion.

Arizkun egindako halarretik ere alkate berriatera zen, Francisco Rekarte horretarako prest azaldu baitzen. Beraz, orain Arraioz da alkaterik gabe dagoen herri bakarra eta bertze batzarre deitu beharko da hilabete baino lehen. Edozein gisara, zazpi gazte herria ordezkatzeko lukeen batzorde bat osatzeko prest azaldu ziren. Baina proposamen hau baztertu egin zen. Baztango Junta



Elizondoko Gida Turistikoa karrikaratu da

Batez ere turistek zuzendutako Elizondoko Gida Turistikoa karrikaratu da. Anastasio Nagore, lehengo alkatearen eta bere kargodunen ideia izan zen. «Agurtzeko modu polita izaten ahal zela pentsatu genuen». Gabriel Inbuluzketa kazetaria da testuen egilea eta Joxe Urrozek euskaratu ditu eta 1.500 ale karrikaratu dira.

Generaleko ordenantzetan ez baita ageri. Juan Carlos Mortalenak erran zuenez, «talde berru egiten duen pertsona bat egon behar dela erran digute, baina hemen ez da inork nahi, ardura sobera delakoz. Baina gu taldean lan egiteko prest gaude eta ekitaldi ofizial bakoitzea

baino astebete lehenago zein izanen zen ordezkaria erabakiko genuke».

Antxitonea Trinketea otsailaren 17an zabalduko da

Otsailaren 17an zabalduko ditu bere ateak Antxitonea trinkete berriak. Trinketeaz gain,

25 logelako hotela eta jatetxea ere irekiko da. Inaugurazio ekitaldian, goizeko 10etan pilota partiduak jokatuko dira. Herri bazkaria izanen da bertsolari eta musikariekin. Ganez, Iruñeko rock talde baten eta Joselu Anayak taldearen emanaldia izanen da.

flash

◆ **Oihan enkantea**
Balleko Udalak Sumusua inguruan dauden 1.468 haritz amerikano eta izei zaharitzen aprobetxamendurako enkantea egingen du. 1.632 metro kubiko egur emanen dute eta haserako prezioa 15.401.640 pezetakoa da. Proposamenak otsailaren 19ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

◆ **Arraiozko pilotalekua**
Arraiozko pilotalekuaren errebotea itxeko eta alboko paretak egiteko lanak Elizondoko Arnis Telletxea eraikuntza enpresak egingen ditu 3.419.042 pezetaren truke. Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak lan honen erdia subentzionatuko du.

◆ **Iruiritako Dorrea**
etxea erosteko eta moldatzeko inentzioa du Balleko Udalak. Patxi Oiarzabal alkateak adierazi zuenez, «aitzina jauregia da eta berez ondare handia da ballearendako, baina horretaz gain erabilera eman nahi zaio, kultur ekitaldiak bertan egingez».

ZALDUBI

Martín Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonica • ☎ 948 580 562 IURITA

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88. ☎ 948 580939
ELIZONDO

MERKEALDIAK

TENPORADAKO ARROPA ETA
OIHALETAN

ESKULANGINTZAKO MATERIALAK

IÑAUTERITAKO TELAK

Ihauteriak otsailaren 24 eta 25ean ospatuko dira aurten

Gazteen ibilialdiarekin batera, ikastolak bazkaria antolatu du igandean

ANA MARI ETA FRED

Urtero bezala, Haus-te aitzineko asteburuan ihauteriak iragaitzekoak dira. Larunbatean, herriko gazteek horien ibilaldia Zahar Etxetik abiatuko dute, gero etxez etxe Elbarrun barna pasatuko dire, Ihalar auzoan goiza finituz, Baratsartean bazkaria izanen baitute. Arratsalde, Lehenbizkai aldera joanen dira, eguna Herriko Etxeko edantegian finitzeko. Goiz aldera bukatuko da besta, urtero ekartzen duten musika taldeari esker. Igandean, Zazpiak Bat dantza taldeak ikusgarria eskainiko du plazan eta ondokiko Zarpantzarren auzia eta erretzea ukanen dugu. Gero, iaz bezala, Oihuin ikastolak bazkaria antolatuko du Omordia gelan. Izena eman nahi dutenek Bittori dei dezatela 0559542732 zenbakira. Bertalde, bigarren urtez herriko hiru eskolek bat eginen dute ihauteri kari. Otsailaren 13an, asteartearrekin, arratsalde haurrek mozorroturik plazan barna ibilaldia eginen dute, gero polikiroldegian elkartuz.

Auzapezaren agiantzak

Urtarrilaren 19an, Herriko Etxean, auzapez



Ikastolak antolatutako bazkaria eginen da aurten ere Omordian.

pez jaunak herriko elkarrekin buruak eta herriko langileak gonbidatu zituen urte berri kari. Eskainitako aperitifan, jende andana bildu zen. Agiantzen ondokiko, Aniotz behere jaunak martxoako hauteskundeetako bere lista osatua zuela erran zuen.

Patagostegiati Apezterako bidea

Herriko Plazan egiten obren ondokiko, Patagostegiati Apezteraino doan bidearen arramoldatzeko lanak ere fitexko hasi behar litaizke. Hilabete batez zirkulazio aldizka egiten da eta, noizbehinka bidea arrunt hetsia izatea gerta daiteke ere. Obrak plazan eginkoen segida dira eta, bazterrak

apaintzeaz gain, ur hoderia ere berritua izanen da.

Axurian barna

Otsailaren 18an, Axuria mendia gaindi ibilaldi bat antolatu da Bermeo eta Leitzako jendeekin. Gan den urtetik, bi herri horiekin harremanetan baita Sara. Izenak Herriko Etxeko edantegian eman behar dira. Oinez ibili ondoren bazkaria egiten da Zugarramurdi; tenorea eta abiatzeko tokia ostatuan ere jakiten ahalko dira.

Tripotxa jatea

Urte guziz bezala, auzapezak eta herriko kontseilutak Sarako erretiratutako tripotxa jaterat gomitatzen dituzte.

Hitzordua otsailaren 10ean finkatua da, eguerdi eta erditarik goiti, Omordian.

Biga komitearen afaria

Biga komiteak sustengu afaria antolatu du martxoaren 3an, Bixente Garciaaren alde eta Teresa Telletxearen omenez. Apatua Omordia eman da, eta txartelak otsailaren 25a arte erosten ahal dire Herriko Etxeko edantegian.

Erugbia

Lehen taldea irabazi gabe da aurten, Puyoren kontra 7-8 eta Azkainen 21-11 galduz. Ondoko zoi gehiagokoa otsailaren 11n jokatu dute Lit-et-Mixen kontra, Animaniako zelaian.

Xaharrei laguntzeko prest agertu dira bi herritar

Gure herrietako xaharrei laguntza eskeintzen dien Bidelagun elkarteak urtarrilaren 11n Elizondon egin zuen bileran borts laguntzaile berrik eman zuten izena. Borts hoietatik bi Zugarramurdikoak dira: Kruzis Apeztegia eta Dolores Iratzoki. Gaur egun gure herrian ez du iduri halakoen beharrik ote den, baina Kruzis eta Doloresek garbi utzi nahi izan dute, han edo hemen, behar denean beren laguntza emateko prest daudela. Gero eta adindu gehiago dagoen gizarte honetan eskertzekoa da deuseren truke beren denbora emateko prest agertzen diren lagun hauen borondatea.

Antzezplana

Kisulabe elkarteak antolatuta, otsailaren 18an (igandea), arratsaldeko Setan Azketa pilotalekuan «Hotel du Fronton» antzerki emanaldia eskainiko da. Turismari buruzko parodia egiten da, Antton Lukuk zuzentzen du eta Iparraldeko eskuaran izanen da.

Mendi ibilaldia

Otsailaren 18an ere mendi ibilaldia dugu. Honetan Urruñara izanen da, Larungo kaskotik pastu ondokiko. Beti bezala, goizeko Setan plazaatik abiatuko da.

Fernando Kadizera

Aitzineko TTP-TPA-PAN Fernando Arburua Iruñean zegoela aipatzen ginuen, baina berriz Kadizera itzuli dute, bere ahizparen elizkizunak ospatzen ahal izan gabe.

LABEZAR
© 948631076 • BERA

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
MARIKI ETA VERONIQUE
64310 SARA • TEL. 05 58 94 25 19

EZKONTZAK

Juan Jose Alunda Leizagoien eta **Mercedes Hualde Espeloin**, Arraioz eta Legasakoa, urtarrilaren 13an.

Juan Jose Mate Lopez eta **Estela Maria Gordo Juarez**, Udabekoak Iruritan, urtarrilaren 13an.

Belen Mutuberría Iturria eta **Bittor Taberna Iparragirre**, Arantzakoak, urtarrilaren 27an.

JAIOTZAK

Julen Arakues Mikela Jauregi, Lesakakoa, abenduaren 20an.

Mattin Lopez Tapia, Lesakakoa, urtarrilaren 20an.

Ainara Etxeberria Goñi, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean.

Mikel Organbide Elizagoien, Arraiozkoa, urtarrilaren 20an.

Ainhoa Leitza Garrido, Doneztebekoa, urtarrilaren 17an.

HERIOTZAK

Jose Loiarde Loiarde, Goizuetakoa, urtarrilaren 28an, 78 urte.

Miguel Bengotxea Olazar, Arraiozkoa, urtarrilaren 28an, 64 urte.

Maria Bartoli Miró, Elizondon, urtarrilaren 22an, 103 urte.

Juana Francisca Elizetxe Alkasena, Elizondokoa, urtarrilaren 26an, 92 urte.

Juan Ignacio Iraizoz Camino, Elizondokoa, urtarrilaren 27an, 60 urte.

Jose Miguel Bildarraz Azkonegi, Leitzakoa, urtarrilaren 23an, 70 urte.

Sebastien Iratzoki, Sarakoa, urtarrilaren 3an, 63 urte.

Maritxu Merciris, Sarakoa, urtarrilaren 15ean, 62 urte.

Yvonne Goietxe, Sarakoa, urtarrilaren 22an.

Antonio Iparragirre Almandoz, Sunbillakoa, urtarrilaren 21ean.

Isabel Ibarrola Garcia, Doneztebekoa, urtarrilaren 17an, 78 urte.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Alzateko Plaza, 2
BERA

ttipi-ttapa
internet

web-orria:
www.topagons.com/ttipi-ttapa
E-mail:
ttipi-ttapa@topagons.com

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



Antonio IPARRAGIRRE
ALMANDOZ

2001. urteko urtarrilaren 21ean

Ez negarrrik egin. Jainarengana noa. Zeruan esperatuko dizuet. Ni hil naiz, baina nire maitasuna ez da hiltzen. Zeruan maitatuko zaituztet Lurrean maitatu zaituztedan bezala. Familiaren aingeru ikustezina izanen naiz. Jaungoikoak zuengatik eskatzen dudana emango dit.

FAMILIA.

Rafa Maritxalar, Maika Ariztegi eta Iñaki Mihura Nafarroako kros txapelkunak

- Eskualdeko korrikalariak bikain aritu ziren Altsasun urtarrilaren 28an
- Korrikalari lesakarrak lehen aldiz irabazi du senior mailako txapelketa

TTIPI-TTAPA

Rafa Maritxalar lesakarra irabazle suertatu zen urtarrilaren 28an Altsasun jokaturako Nafarroako kros txapelketa, senior kategorian. Hamar kilometro terdi egin behar zituzten kategoria honetan eta Barakaldo taldean ari den lesakarrak hasiera-hasieratik jo zuen aitzinera, urez eta lohiez estalia zegoen zirkuituan. Pistan entrenatzen duenez, probaren bigarren zatian beheiti eginen zuela pentsatuko zuten bere arerioek, baina alderantziz gertatu zen eta abantaila handitu egin zuen. Azkenean, Hiru Herri taldeko Mario Lopez de Uralde izan zen bigarren, Beste Iruñeko Raul Amatrain hirugarren eta Beste Iruñeko Antonio Brubatarra laugarren. Maritxalarrek espero baino errexago irabazi zuela onartu zuen.

«Jende indartsua baze goen eta ezaugarri ezberdinak eskatzen zituen krosa zen, ur eta lohi aunitzekin. Teknikoagoak diren ibilbide hauetan hobe moldatzen naiz. Indartsu atera naiz eta honelakoetan bi gauza gertatzen dira: edo hondoa jotzen duzu edo hazten zara. Juxtu-juxtu heldu nintzen baina indarrarekin nengoen eta gibeletok laster aunitz egin behar zuten niri harrapatzeko». Nafarroako kros txapelketa irabazten duen lehen aldia da eta horregatik ilusio bere-



Rafa Maritxalar, Barakaldo taldean ari den lesakarra aisa nagusitu zen senior mailako gizonzkoen artean.

zia egin dio. «Gainera, orain lanean ari naiz eta horregatik buru-belarri atletismora eman nintzenean baino lasaiago aritu naiz».

ARIZTEGI NESKETAN ETA MIHURA JUNIORRETAN

Senior mailako mutiletan ez ezik, nesketan eta junior mailako mutiletan ere eskualdeko korrikalariak lortu zuten garaipena, sei kilometroko lasterketen

ondotik. Nesketan, Beste Iruña taldeko Maika Ariztegi iturndarra hirugarren izan zen lasterketan, baina aitzineko biak Gipuzkoako Federaziokoak zirela kontuan hartuz, beretzat izan zen Nafarroako txapelketa. Taldeka ere, Beste Iruña suertatu zen irabazle, lehendabiziko lauak talde horretakoak izan baitziren. Maika Ariztegi kontent zegoen: «Lo-

hian hobekiago aritzen naiz eta ongi moldatu naiz ibilbidera, baina hagitz gogorra izan da. Ez nuen irabaztea espero. Sugrario Izquierdo ere indartsu baitzegoen. Baina lesioa baten ondorioz ez du parte hartu eta neretzat izan da garaipena».

Junior mailako mutilen artean, Hiru Herri taldeko Iñaki Mihura arraiostarra suertatu zen garaile.

BOFE
Ariztegi

◆ Eskuz binakako pilota txapelketa

Eskualdeko pilotari dagokienez, denetik ekarri du eskuz binakako txapelketaren lehendabiziko faseak: Aimar Olaizola (Bernarekin) eta Inaxio Errandonea (Nagorekin) kanpoan gelditu dira. Julian Retegik (Errastirekin) hau idazterakoa aitzinera segitzeko aukera aunitz ditu. Aitzinera eginen duena, haseran txapelketatik kanpo gelditua zen Asier Olaizola da. Patxi Eugiren lesioaren ondorioz, Aspe enpresarekin bere jarrera negoziatu zuen goizuetarrak. Bi partidu irabaziz gero, txapelketan aitzinera segituko zuela erabaki zuten eta horixe lortu du. Aspek egindakoa zer erranik sortu du pilotazaleen artean, lesiotik sendatu ondotik txapelketatik kanpo gelditu baita binakako eta laurterdiko txapelketa. Eugik berak adierazi duenez, Olaizolaren jarrera zilegia eta ulergarria iruditzen zaio, ez ordea enpresarena. Kontuak kontu, azken orduko erabakirik ez bada, goizuetarra ariko da finalerdietan.

Paxaka eta laxoa Bortzirietan ezagutzera eman nahi dira

- Laxoa Elkarteak solasaldia eskainiko du otsailaren 9an Beran
- Berako kiroldegiak antolatutako ekitaldia da

TTIPI-TTAPA

Paxaka eta laxoa pilota modalitateak Bortzirietan ezagutzera eman eta zabaltzeko asmoarekin solasaldia antolatu du Berako kiroldegiak ortziral honetarako, otsailak 9. Arratsaldeko 7,30etatik aitzinera, kirol hauen berri emanen dute Berako Kultur Etxean Laxoa Elkarteak kideek. Bertan, pilota joku hauen historia, arauak, jokatzeko behar diren tresnak eta bertze xehetasunak azalduko dituzte. Baina kontua ez da solasaldi hutsean geldituko, laxoa eta paxaka erakustaldiak eskainiko baitira gero Eztegarri pilotalekuan.

Tiburtzio Arraztoa, Laxoa Elkarteak kideak adierazi digunez, «Laxoa eta paxaka aski ezagunak ziren Bortzirietan joan den mendean.



Paxaka gure herrietako arkupean jokatu zen duela urte gutxi arte. Argazkia, Baztango Herriko Etxearen arkupean aterria da, Elizondon.

dean. Lesakan, XIX. mendean laxoan aritzeko hiru plaza zeuden, eta 1850 urteko arautegia gordetzen dute etxean, Beran, 1880. urte inguruan egin ziren Euskal Jaietan laxoa partida jokatu zen. Bertze herrietan ere bazen laxoa plazarik. Paxaka

berrikiago arte ere jokatu dela uste dugu».

Baztan eta Malerrek aitzinako pilota modalitate hauek berreskuratu diren bezalaxe, Bortzirietan ere egiten ahal dela uste du Arraztoak: «Jendeak ezagutu egin behar ditu lehenbizi eta gero prak-

tikatu. Paxaka berreskuratzea errezagoa da, edozein arkupe edo pilotalekutan egiten ahal baita. Laxoan aritzeko, aldiz, plaza libre behar da eta zailagoa izanen da, baina jakin dezatela zer den eta nola jokatzeko den, behin-behinean».

Bigarren paxaka txapelketa azken txanpan sartua da

Laxoa Elkarteak antolatutako II. Paxaka txapelketako final laurdenak jokatu dira larunbat arratsalde honetan, 4etatik aitzinera Irurritako Arantzia pilotalekuan. Hasiarako hamabortz hiru koteetatik zortzi –multzo bakoitzeko lau lehendabizikoak– gelditu dira final laurden hauek jokatzeko. Bigarren multzotik, Elizaintzin-Urrutia-Urrutia, San Miguel-Zelaieta-Anso, Midegia-Mendiola-

Mendiola eta Arraztoa-Artazkoz-Etxeberria sailkatu dira final laurdenetarako. Lehen multzoan berdintasun handiagoa izan da eta asteburu honetan jokatu den azken jardunaldiaren faltan, Franzesena-Unanua-Urtasunek bakarrik segurtatua zuten final laurdenerako txartela.

Finalerdiak otsailaren 17an jokatu dira, arratsaldeko 5etan eta 6etan. Final handia, berriaz, martxoaren 3an jokatu da, arratsaldeko



Joan den urteko finaleko argazkian, azpitxapelkun suertatu zen Oizko hirukotea.

6etan. Ordubete lehenago, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen norgehiagoka jokatu da.

Antolatzaileak gustora daude, «iaz baino maila handiagoa ikusi delako. Jendeak gehiago entrenatu du aurten».

BOFE

◆ Nafarroako Pilota Federazioarako hauteskundeak

Boturik gabe 27 elkartek edo klub daukela eta errekurtsio jarri du Belate kandidataturak Nafarroako Gobernuaren Kirol eta Gaztediaren Institutuan. Pozuetaren kandidaturari egingo eskaintzari dagokionez –batzarrean izanen diren klubetako 32 ordezkariak erdi eta erdi banatzea proposatu zuen Belatek– erantzunaren esperoan daudela adierazi dute. Pilotari, tekniko eta epaileei zuzendutako bilera informatiboa egin zuen otsailaren 2an Doneztebeto zinemaren Belatek, bertze eskualde batzuetan bezalaxe. Inguru honetako pilota eskola eta elkarte gehienek Belate kandidataturaren aldeko jarrera azaldu dute.

◆ Koteto Ezkurra

Espainiako binako Erremonte txapelketaren finalerdiak kanpo gelditu da Ezkurra doneztebarra, Urrestillako Etxeberria Irekin batera. Bitoria eta Eizagirren aurkako finalerdiko bi partiduak galdu zituzten. Lehendabiziko partidua 38 eta 40 galdu egin zuten urtarilaren 30ean Huarren eta bigarrena otsailaren 1ean, Galarretan, 35-40. Bi partiduak gogorak izan ziren, baina gibelean alde handia dago oraindik Eizagirre eta Etxeberriaren artean.

AGENDA EGUNEZ EGUN

INAUTERIAK

ARANTZA

► **Otsailaren 8tik 10era.** Xehetasunak 14. orrialdean.

BERA

► **Otsailaren 17an** Kaldererook. Entsaioak 13, 14 eta 16an.

BAZTAN

► **Otsailaren 10ean** Gizakunde. Arizkungo elkartearen mozarroen afaria, gauerdian puske biltzea eta mamuru uxatzea. Arizkundik Erratzura bide zaharretik.

► **Otsailaren 17an** Ernakunde. Goizez Elizondoko karrketan mozarro xuriaren puske-biltzea. Elbeten bazkaldu eta atsaldetuz Elizondon mozarro beltz eta xuriak agertuko dira bazterrek inarrosiz.

TOPAGUNEAK

DONEZTEBE

► **Otsailaren 10ean** Baztan-Bidasako Gay eta Lesbianen Topagunea, Doneztebeko Kaxerna ostatuan, arratsaldeko 4etan.

MENDI IBILALDIAK

SARA

► **Otsailaren 18an** Axuria mendia gañdi ibilaldia antolatuta da, Bermeo eta Leitzako jendeekin. Izen ematea Herriko Etxeko edantegian.

ZUGARRAMURDI

► **Otsailaren 18an** Zugarramurdi-Uruña, larunen bama. Abiatzea goizeko 8etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



Seinalea hobetzen

Azkenean moldatu dira Malerrekan eta Bera eta Lesakako auzo batzuetan TTPI-TTAPA TELEBISTAREN seinalea hedatzeko arazoak. Zalain, Zalain-Zoko, Ilekua eta Alkaiaga auzoetako bizilagunek, beraz, dagoeneko telebista beti bezala ikusi ahal izanen dute Eskolamendiko antenaren moldaketa egin ondotik.

MALERREKAN ERE BIKAIN

Malerrekan, berriz, seinalea indartu egin dugu, beraz orain arte seinalea ongi jasotzen ez duzuenek zuen etxe-ko telebistan sintonizatzea bertzerik ez duzue, 62. kanalean.

PROGRAMAZIOA

Otsailaren 12an Etxalarko Ezkongaien Feriari buruzko erreportai berezia. Hortaz gain, hurrengo asteetan, zuzeneko musika emanaldiak itzuliko dira ttipi-ttapa telebistako programaziora.



BASERRIA



◆ ZERRIKIA ◆

- Zerrikumea (19 kilo): 7.900 pta.
- Zerri gizona (95-100): 194 pta./k.
- Zerramak: 85-95 pta./kiloa, bizirik.



◆ BEHIKIA ◆

- Aretze gizenak 200/250 k.
- Idixkoak/Urruxak: Pta./kg. Kanal Extra 555-565
- 1.koa 515-525
- 2.koa 465-475
- Aretze gizenak 320 kilorik goiti
- Idixkoak/Urruxak: Pta./kg. Kanal Extra 465-475
- 1.koa 425-335
- 2.koa 375-390

- Aretze tikiak (15 egun ingurukook):
- Nabarrak:** urruak 23.000-26.000 eta idixkoak 30.000-34.000 Pta.
- Mestizoak:** urruak 24.000-26.000 eta idixkoak 37.000-39.000 Pta.

Zaldikoak:

Sortuberriak: 465-485 Pta./Kg.
Zaldi eta behorak: 295-305 Pta./Kg.

Bildotsak:

6-8 kilokoa 900-950
8-10 kilokoa 750-800

DATUAK: NAFARRAKO GOBERNUA

DISKAK



«Egunon»

GOZATEGI

ELKARLANEAN

Hamabi kanta eskaintzen dizkigu Asier Gozategiren trikiak, Ifigo Goikoetxearen charangoak, Ainhoa Gozategiren panderoak eta hiruen ahotsek osatutako Gozategi taldeak. Hasera haseratik, kantuz kantu eta diskoz disko bizitzaren alderik bizi eta erritmoz betena erakutsi ohi du erromeriaren unibertsoan leku berezia izatea aspaldi lortu zuen talde honek, bizitzari berari

abestuz, matemintzen gaituzten penel eta kemen berriak ematen dizkiguten atsekabeak. «Egunon» bere laugarren diskoa dugu, eta izenburu bereko kantuz gain, «Ezpada», «Bizi», «Mugarri gaineratik», «Goazen urrutira», «Zirkua», «Denbora eder hori», «Zutik» eta «Euskal selekzioa» abesti aske eta eraginkorrez osaturik dago. Aditzeko eta dantzatzeko diskoa.

Eskizofrenia

Eskizofrenia uste duguna baino eritasun arruntagoa bada ere, orain dela gutti harte eritasun hau zuten pertsonekin egiten zen bakarra erotzetxeetan sartzea zen, sendatzeko edo oreka berreskuratzeko inongo tratamendurik eman gabe. Horregatik azaldu nahiko nituzke eritasun honen alderik ohikoena.

Zer da eskizofrenia?

Pertsonalitatearen nahasketa bat da. Pertsonak ez du errealitatea dena eta ez dena bereizten. Gizonetan 15 eta 25 urteen artean eman ohi da gizonen artean eta 25 eta 35ean artean emakumeen artean. Hasiara bapatekoa izan daiteke edo pixkanakakoa.

Arrazoiak:

Arrazoiak zehazki ezagutzen ez diren arren, teoriarik erabiliena eritasunak oinarri genetikoa izatea da, eta inguruneak eragile bezala jokatzea.

Sintomak:

Sintoma positiboak:

- Aluzinazioak; hau da, errealitatean existitzen ez diren gauzak aditu, usaindu, ikusi edo sentitzea. Arruntek aditzen direnak dira (gauzak egiteko agintzen diot abotsak entzuten ditut eriak).

- Delirio ideiak; logikoki esplikatuz ezin daitezkeen ideia faltsuak dira (norbera Jaunkoia dela sinetsi, norbaitek segitzen diola, denek min egin nahi diotela...).

- Pentsamenduaren nahasketa: pertsonak pentsamendu batetik bertzerara egiten du salto, zentzurik gabe solasten, hitzak asmatzen...)



Eritasun honek oinarri genetikoa izatea da teoriarik zabalduena.

Oso-osorik bere onera ekartzea ezinezkoa baldin bada, tratamendu egokiak, pertsona egonkor mantendu daiteke.

Sintoma negatiboak:

- Interes galera: Pertsonak ez ditu sentimendu edo emozioak azaltzen.

- Abulia: iniziatiba eta energia falta.

- Anhedonia: pertsonak lehen plazerren ematen zioten aktibitateekin ez du plazerrik lortzen.

- Kontzentrazio mentalarekin arazoak.

Tratamendua:

Azken berriek datu esperantzagarriak ekarri dituzte, eskizofreniaren lehen atalaren ondotik, gaixoen laurden

bat 5 urteren buruan sendatzen delakoz. Dena den, aipatu behar da oso-osorik bere onera ekartzea ezinezkoa baldin bada, tratamendu egokiarekin pertsona egonkor mantendu daitekeela.

Tratamendu farmakologiko eta psikoterapikoaren arteko nahasketa bat da egokiena. Medikazioaren alderirik txarrena ondorio sekundarioak sortu ohi dituela da.

Aplikatu beharreko terapia familia-terapia da (guziz beharrezkoa baita familiaren laguntza gaixoa senda dadin) eta talde-terapia (gaixoak bertzeekin elkarbizitzetik behar du eritasuna hartu ondotik). Hasiara batean bederen, terapia indibidualizatua ez dago gomendatua.

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTI ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Otsailaren 9an**
Los Roslis, Kasino ostaturan.

► **Otsailaren 26an**
Arkanda.

PILOTA

ELIZONDO

► **Otsailaren 17an**
Antxitonea trinketearen inaugurazioa: pilota partidak, bazkari herrikola eta gaupasa Joselu Anaiak eta Iruñeko rock talde batekin.

LEHIAKETAK

ELIZONDO

► **Martxoaren 3a baino lehen** aurkeztu behar dira Baztandarrren Biltzarreko karterlak. Gaia hauxe izanen da: Mariano Izeta eta Baztandarrren Biltzarra. Saria 50.000 pta.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tifora, deltu behar da

► **Otsailaren 5etik 11ra** Arantza, Narbarte, Iruña eta Goizueta.

► **Otsailaren 12tik 18ra** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (lezaun) eta Goizueta.

► **Otsailaren 19tik 25era** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebista ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berritu dira. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/geltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZA.

Basokabi aldean, 3.000 m²ko lur eremuak salgai

☎ 948 425 613

☎ 948 538 334 (Mugara)

BERA. Pisua salgai. ☎ 948 630 943.

BERA. Pisua salgai Itzea karrikan. ☎ 948 631 022.

LEITZA. Pisua salgai, haritzezko sukaldia, jangela montatua, kortinak, lanparak eta kalefakzioa. 13 milioi pezeta. ☎ 948 510 169.

LESAKA. Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdian eta 19etatik aitzin).

IGANTZI. Pisua garajea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845 (1etatik 3etara).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 843
☎ 948 538 334

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisua mobleztatua errentan emateko. ☎ 948 630 449.

IRUÑEA. Pisua errentan emateko Errotxapean. Ongi kokatua. ☎ 948 630 217.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUA

IRUÑEA. Pisua konpartituko nuke neskekin. ☎ 948 631 223.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Bajera errentan emateko Legia karrikan. ☎ 948 630 217.

BERA. Lokal komertziala errentan emateko lehen Banco Central Hispano zegoen tokian. ☎ 948 630 268.

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

BERA. Lokala errentan emateko Iburlandeta 6.ean. ☎ 948 631 375 edo 948 630 240.

ZERBITZUAK

207 GARRAIOAK

Garraioak eta banaketak egiten dira enpresa zein partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477277.

DESGUACES



☎ 608 876 456 + 948 637 552
Lesaka-Igantzi errep. 2 km.

LANA

301 ESKAINTZAK

Langileak behar dira Zugarramurdiko Halty jatebهران. Mutil edo neska. ☎ 948

599 110 edo (00 33) 559 54 24 84.

ileapaindegirako laguntzailea behar da asteburu-etan. Interesatuak argazki bat eta datu pertsonalak bidali Berako 50 posta kutxa zerbakira.

Etxalarko jatetxe batean zerbitzaria behar da aste hondarretan lan egiteko. ☎ 656 703 502.

Frantsesa dakien neska behar da sei hilabetez lan egiteko. ☎ 948 630 794 (gauetz).

LANA

302 ESKARIAK

Ordenagailuak konpon-tzen dira. Etxean bildu eta



ETXALARko UDALA

UR-DEPOSITUKO ETA URA TRATATZEKO PLANTA HANDITZEKO OBREN LEHIAKETA

- **Adjudikazio mota:** Lehiaketa irekia.
- **Kontrataren aurrekontua:** 26.478.424 pezeta (BEZa barne).
- **Egiteko epea:** Hiru hilabetezko epea, adjudikazioa jakinarazten den egunetik hasita.
- **Proposamenen aurkezpena:** Eskaintzak Etxalarko idazkaritzan aurkeztuko dira datorren 2001eko martxoaren 12ko 13:00ak baino lehen.
- **Eskaintza ekonomikoen irekitzea:** 2001eko martxoaren 15ean, arratsaldeko 6etan.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza administrazioen pleguan ageri direnak.

Proiektua, baldintzak eta proposamen ereduak lizitatuzaileen eskura daude herriko idazkaritzan.

Etxalarren, 2001.01.19
ALKATEA, Miguel Mari Irigoien



ETXALARko UDALA

KULTUR ETXEA PRESTATZEKO OBREN LEHIAKETA

- **Adjudikazio mota:** Lehiaketa irekia.
- **Kontrataren aurrekontua:** 16.203.341 pezeta (BEZa barne).
- **Egiteko epea:** Lau hilabetezko epea, adjudikazioa jakinarazten den egunetik hasita.
- **Aukerako eskaintza:** Igogailuaren instalazioa. Aurrekontua: 3.761.880 pezeta (BEZa barne).
- **Proposamenen aurkezpena:** Eskaintzak Etxalarko idazkaritzan aurkeztuko dira datorren 2001eko martxoaren 12ko 13:00ak baino lehen.
- **Eskaintza ekonomikoen irekitzea:** 2001eko martxoaren 15ean, arratsaldeko 6etan.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza administrazioen pleguan ageri direnak.

Proiektua, baldintzak eta proposamen ereduak lizitatuzaileen eskura daude herriko idazkaritzan.

Etxalarren, 2001.01.19
ALKATEA, Miguel Mari Irigoien

entregatzen dira. ☎ 948 630 288 edo 617 635 943.

Ostato batean edo almatzenean lan eginen nuke. ☎ 948 631 602.

Talde batekin edo trikitilaren batekin lan eginen nuke. **Panderoa ondo jotzen dut**, abestu eta irrintziak ere bai. 16 urte ditut eta mutila naiz. ☎ 943 332 547 edo 943 550 085.

Iturgintzan eta kalefakzioan lan eginen nuke. ☎ 948 393 112.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Volkswagen Jeta salgai. NA-W. ☎ 676 160 821.

Renault Clio 1.2 salgai. 46.000 km eta 3 urte. NA-AV. ☎ 617 567 047.

Fiat Bravo 16 V, NA-AU eta Opel Calibra 16 V, NA-AF salgai. ☎ 948 450 040.

Peugeot 406 salgai. ☎ 948 637 740 (arratsaldez eta gauez) 948 631 403 (goiezez).

Ford Escort TD familiarra eta Suzuki Samurai 1.300 salgai. ☎ 948 630 999.

Karrerako scooter-a salgai. 25 zaldikoa, egoera onean. Prezioz hitzeginen dugu. ☎ 639 934 770.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Nissan GR, Vectra Caravan TD,

Ford Orion egoera onean,

Terrano II, Rover TD.

SUZURKAK ETA VITARRAK ALKERAN

LODITASUNA

EDAN ETA ARINDU!

Zure pusu korronteak gureko jantzi berezietan gabe.

☎ 948 13 11 36

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Abenduaren 10ean Doneztebeko Bear-Zana frontoian poltsa bat galdu nuen **hortzetako protektore urdina** eta pantaloneta urdina bamean zituela. ☎ 948 450 204.

Indo betaurreko graduatuak aurkitu dira Toki Ona institutoko parkean. ☎ 948 625 000.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Banabar habiak (ilar-makilak) salgai, ezpelezkoak. ☎ 948 580 228 (Elizondon).

Intxaur plantak salgai. ☎ 948 510227.

2000 litroko poliesterezko 3 depositu salgai, grifoeekin, ardoa gordetzeko proposak. ☎ 948 453 007 (goizeko 8etatik 10etara).

Gasnategia salgai: 4 karrileko prentsa, moldeak, esne depositua, *baño Maria* egiteko ontzia... ☎ 657 792 552.

Egurrezko sukalde kalfaktorea salgai. Egoera onean. ☎ 609 744 757.

Kutxa erregistratzailea salgai, eskanerarekin. ☎ 948 631 403.

Kutxa erregistratzaile berri-berria salgai. Euroak, rolo bikoitza... ☎ 948 631 516 (denda orduetan).

70 kilo ilar beltz salgai. ☎ 948 637 704.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Leitzako Esteban Joseba eta kopilotoari: a ze potentzia daukan zuen kotxeak, 7 pertsona bide horietatik ekartzeko. Esteban, zuk bai potentzia lau neskekin momentu berean, eh? Eskerrik asko. I.A.L.

2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuko, bidali sobra zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 40 Peko 13 selu igorri behar duzue. Galnerakoan ez dira TTPI-TTAPA mugazkan eta aldizkarian agertuko. Argazkia izultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Unai Teiletxea Iraola igotzarrik 5 urte beteko ditu osalaren 11ean. Auzita urtez Eneko, ama eta atzerri partetik.



Julen Mala Antxorena egotzarrik 12 urte bete ditu osalaren 13an. Zorionak familiaren partetik.



Zorion M^o Joxe Oharria urtarilaren 18an 18 urte bete ditu. Zorionak Maji, Ana Beien, Patricia, Nekane, Aiarba, Miran eta Idoia.



Arriola Ana Beien Agorreberri urtarilaren 11ean bete ditu 19 urte. Zorionak Joxe, Maji, Patricia, Nekane, Miran, Aiarba eta Idoia.



Unai eta Ane Igna Migeliterena abenduaren 28an eta osalaren 14an, 8 eta 3 urte bete dituzte. Zorionak eta auzita urtez garzo eta jonen partetik.



Ainhoa Gutierrez berzarrik 29 urte bete ditu urtarilaren 24an. Auzita urtez Komando, Kosiunonen partetik.



Nekane eta Maider Etxandi leotzarrik urteak beteko dituzte urtarilaren 25 eta osalaren 15ean. Zorionak Lesakalo familiaren partetik.



Iker Iriarte Altzugarai leotzarrik urteak beteko ditu osalaren 15ean. Auzita urtez familiaren partetik.



Beatriz Maritorea Ganboa donostiarrik 4 urte beteko ditu osalaren 11an. Zorionak familiaren partetik.



Jon Ubiela Sarasola leotzarrik 4 urte beteko ditu osalaren 21ean. Auzita urtez Añica eta familiaren partetik. Aupa Beñe eta Erresala.



Valentín Saenz de Urturi inandarrak urteak egiten ditu osalaren 24an. Jubilazio adina zailgaitzen ar zaitu. Auzita urtez. Familia.



Odei Hidalgo Mendigutxia inandarrak 11 urte bete ditu osalaren 13an. Zorionak Biosa eta maui handi bat Lesakalo familiaren partetik.



Sorbilako Sara Salaberría eta Elizondo Nagore Irigoinen osalaren 24 eta 11an egiten dituzte urteak. Zorionak eta maui handi handi bina Ujizten partetik.



Iñigo Oskoz Gago donostiarrik 5 urte beteko ditu osalaren 22an. Zorionak eta maui handi bat familia guzieren partetik.



Xuban Euzki Goñi elizondarrak 9 urte beteko ditu osalaren 19an. Zorionak eta maui bat familia guzieren partetik.



Beñat Lazkano Etxalar donostiarrik osalaren 15an 2 urte bete ditu. Zorionak familia guzieren partetik.



Ainhoa Agirre berzarrik osalaren 4an beteko ditu 21 urte. Hemen edo han egon urteak berdo-berdo beteko dituztekoen. Zure familia.



Pepita Goia berzarrik osalaren 8an urteak beteko ditu. Auzita urtez eta egun ona pasatzen. Bolagunen partetik.



Maite Arribilet Galtaigorri euzkoarrik 3 urte beteko ditu osalaren 10ean. Zorionak familiaren partetik.



Gorka Elizetxe Elizagoien amestarrak urteak beteko ditu osalaren 12an. Zorionak familia guzieren partetik.



Olaia Gandra Urtxegi euzkoarrik 7 urte bete zituen urtarilaren 21ean. Zorionak eta maui handi bat familiaren partetik.



Jonan Arbelaitz Heras zubietarrak osalaren 14an 2 urte beteko ditu. Zorionak maui pilatza.



Beñat Martiarena Aduriz donostiarrik 5 urte beteko ditu osalaren 13an. Zorionak eta mauiak atzetik eta amabaren partetik.



Santiago Juanikotena Etxegarai elizondarrak urteak beteko ditu osalaren 19an. Zorionak berriko familiaren partetik. Egun ona pasatzen.



Enaitza Teiletxea Sein igotzarrik urteak beteko ditu osalaren 17an. Zorionak parteko etxeko guzieren partetik.



Nekane Etxandi Almandoz 17 urte bete zituen urtarilaren 15ean. Zorionak parpaka, lagun miraren partetik.



Yane Izarlarte Mindegia 15 urte bete zituen urtarilaren 13ean. Zorionak parpaka, lagun partetik. Teagaitzen zain gure.



Eider Pikabea Mitxelena berzarrik 8 urte beteko ditu osalaren 14an. Zorionak joxe, ama eta atzerri partetik.



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

(+34) 948 631 188

TOKI ONA Institutua BERA

Aurreinskripzioa:

• D.B.H.:

Otsailaren 26tik martxoaren 9ra

• BATXILERGOA eta ERDI ZIKLOA:

Maiatzaren 2tik 11ra

• Goi Zikloa:

Ekainaren 1etik 7ra

Tfnoa.: 948 625 000

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ESKAINZA

BEREZIAK PLAZA

ZAHARREAN

ZAHARBERRITZE

OBRENGATIK

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26


SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780

NA-31780 **LESAKA**

A

rmairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian



**%10, %20 eta
%30eko
deskontuak**

Ezkonqaien

FERIA

Novio

2000

ENTRADA
Libre



Otsailak

11

Febrero



En las mesas de participación
de esta feria...

INVITACIONES

En las mesas de participación

| | |
|---------------------|---------|
| BERA | ETXALAR |
| MAN | HERNAN |
| Kalantak | HERNAN |
| Bermeak | DE |
| Errezilak | BERA |
| DONETEBE | MAN |
| Cañ Oñe | MAN |
| M ^o Casa | MAN |
| ELZONDO | MAN |
| Fern Zaldia | ELZONDO |